

...eta

kitto!

902 zkia.
2014-X-3



Eta bihar... **TXOTX!!!**

eguerdi eta arratsaldean

R.P.S. Nº 149/10 L.L.C.



Egin iezaiezu
SCHOOL VISUAL TEST-a
zure haurrei

Erreflexuen aurkako lente fin eta
apurtzezinak dituzten betaurrekoak **97€**

Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-
Telefona: 943 25 61 00

POLICLINICA GIPUZKOA

Datorren urriaren 8an, eguaztena, Portaleak oftalmologiari buruzko hitzaldia hartuko du arratsaldeko 19.30etatik aurrera, Osasun Ikasgelaren barruan. Mercedes Zabaleta doktorea izango da hizlari, **“IKUSMENA BIZITZA DA. Miopia, Hipermetropia edo Astigmatismoa duzu? Kataraten erruz ez duzu ongi ikusten? Ezagutu itzazu ikusmen-kirurgiako azkeneko aurrerapenak”** izenburuko hitzaldian. Sarrera librea da, lekua bete arte.

Telefona: 943 00 28 00
www.policlinicagipuzkoa.com



Mercedes Zabaleta
OFTALMOLOGOA

“Gipuzkoarren %53k erabiltzen dituzte betaurrekoak edo lentillak”

“Gaur egun, kalkulatzen da, gipuzkoarren %53k erabiltzen dituzte la betaurrekoak edo lentillak ikusmen-arazoak zuzentzeko”, azaldu du **MERCEDES ZABALETA oftalmologoa**; “Gipuzkoa Poliklinikan teknologiarik aurreratuena dugu ikusmen-arazoan diagnostikoa eta tratamendua eskaintzeko”.

Herritarren artean gehien ematen diren patologiak miopia, hipermetropia edo astigmatismoa dira; hori dela-eta, Zabaleta doktorearen Oftalmologia Zerbitzuak patologia horiek zuzentzeko puntako laserra erabiltzen du. “Poliklinikako Laser Excimer Unitateak 20 urtetik gorako esperientzia dauka eta Laser VISX S4 Laserra dauka; azkeneko horrek, software aberrometro berriarekin batera (etengabe eguneratzen da), emaitza bikainak ematen ditu”, dio Zabaletak; doktorearen berbetan, “laser horrekin ablazio pertsonalizatuagoa eta zuzenagoa lortzen dugu, eta akats errefraktibo konplikatuagoetan (hipermetropia edo astigmatismo oso altuak...) oso ehun gutxi suntsitzen da. Horrez gainera, albo-ondorioak ere asko murrizten dira, itsualdiak esaterako”, gaineratu du Zabaletak.

Azken aurrerapenak ikusmen-kirurgian

Hitzaldian, ikusmen-kirurgian dauden azkeneko aurrerapenen berri ere emango da, hala nola kataraten kirurgian begi-barneko lenti-llak erabiltzea. Zabaleta doktoreak azaldu duenez, “pazienteak nahi

izanez gero, lente bifokal eta torikoak jartzen dizkiogu; begi-barneko lenteak dira, eta urrutira eta gertura fokuratzten dute; ebakuntza egin eta gero, pazienteak ez du betaurrekorik behar izango urrutitik eta gertutik ikusteko, eta horrez gainera, aurretiko miopia, hipermetropia edo astigmatismoa aldi berean zuzen daitezke”.

Ebakuntzak hamar-hamabost minutu irauten du, beti ere pazientearen arabera, eta fakoemulsifikadorea 2’2 eta 2’7 milimetro arteko ebakiduratik sartzen da. Teknologia horiei esker epeak eta arazoak sortzeko arriskuak murriztu egin dira. Pazientea bere kabuz oinez irteten da egun berean, eta, egiten duen lanaren arabera, astebete edo hamar egunetara lanean hasteko moduan egongo da.

Especialistarengana joateko sintomak dira ikusmen-ahalmena murriztea eta fokatzeko arazoak izatea. “Kontutan izan behar da katarata zerbait fisiologikoa dela, urteak aurrera doazen heinean, lehen gardena zen lentea opaku bihurtzen da, ikusmena nahastuz; operatzen ez bada, kataratak ikusmena galarazten du, eta itsutasunaren lehen kausa da hirugarren munduko edo garapen-bidean dauden herrialdeetan”, gaineratu du Zabaletak. Gaur egun, teknologiak asko errazten du ebakuntza, pazienteen porzentaje altuak lortzen du berriz ere ondo ikustea eta emaitzekin oso pozik azaltzen dira.

HITZALDIA:
“IKUSMENA BIZITZA DA. Miopia, Hipermetropia edo Astigmatismoa duzu? Kataraten erruz ez duzu ongi ikusten? Ezagutu itzazu ikusmen-kirurgiako azkeneko aurrerapenak”

OSASUN IKASGELAK
POLICLINICA GIPUZKOA



DATA Urriaren 8an **ORDUA** 19.30 h
TOPALEKUA Eibarko Portalea Udal Kultur Etxea **SARRERA** DOAN

POLICLINICA GIPUZKOA
www.policlinicagipuzkoa.com

ASTEAN ESANAK

"Lan esklaboaren eta galtzeko beldurraren arteko dikotomia ia ezinezkoa bihurtzen du gizakiak bere naturaleza gauzatzea. Hemen ez dago ez antzerkirik ez matematikaririk herriarentzat, egoera sozialak ez duelako halakorik ahalbidetzen: 14 ordu lan egin, 8 bakarrik ordaintzeko"

(VICTOR GOMEZ PIN,
FILOSOFIA)

"Munduko birus nagusia Amerika da. Haiena ez da elkarrizketa politikoa, errieta baino. Min egitea dute helburu, probokatzea, ez uztea liskarrak baretzen Europan"

(MIKHAIL GORBATXOV,
SOBIETAR BATASUNEN PRESIDENTE-OHIA)

"Zenbait krimen larri zigortzeko, heriotza zigorra beharrezkoa da. Familien eta herritarren erreakzio emozionala kontuan hartu behar da"

(MIDORI MATSUSHIMA,
JAPONIAR JUSTIZIA MINISTROA)

"Hedabideek duten gainbeheraren errudunak kazetariak gara, hartzaileak gutxiesten ditugulako maiz. Kazetaritza egitea ahazten zaigu"

(MARIA FERNANDEZ,
CUATRO-KO ALBISTEGIETAKO AURKEZLEA)

"Gure min guztiak dena egonkor bihurtu nahi izatetik datoz. Gure gizartean min handia ikusten dut eta, neurri handi batean, kulturak sortutako mina da"

(PAKO ARISTI,
IDAZLEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KARRAPUSTA.- Iztupa, kalamutik ateratzen den haria edo hari-multzoa. Gaztelarazko 'estopa'. "Harrixetan lotzeko tubo bata bestiak, karrapusta apur bat ipiñi bihar izaten jako, urik ez dein jario".

KARRASKADA.- Oilarrak burrukan atzera egiten duenean ateratzen duen zarata. "Kukurruku harrua aurretik; gero karraskadia".

KARRASKADIA JO.- Atzera egin lehia batean. "Harek be, alperrik goitik ibilli, karraskadia jo dau azkena baiño lehen".

eskutitzak

FRACKING-AREN SINADURA-BILKETAREN INGURUAN

Azken asteotan, Fracking-aren sinadura-bilketa oztopatzea bidegabeki leporatzen zidaten gutunen harira, zera argitu nahiko nuke:

Aurrena: eskabideei erantzuna ematen dieten ebazpenak neuk sinatzen ditudan arren, eta eskatzaileekin telefonoz neuk hitz egin arren, kalearen okupazioa eta/edo material eskaera tarteko duen edozein ekin-tza egiteko baimenak Zerbitzu Batzordearen baitan hartzen direla. Batzorde horren buru neu naiz baina ez naiz kide bakarra: Eibarko Udalean ordezkari duten alderdietako lagun bana dago bertan (hau da: PSE-EE, Bildu, EAJ eta PPko zinegotzi bana) eta baita teknikari bat ere. Eta Fracking-aren aurkako sinadura-bilketa egiteko eskabideak Zerbitzu Batzordean eztabaidatu ziren, eta guztion artean hartu genituen erabakiak.

Hurrena: Sanjuanetan eta Arrate egunean sinadura-bilketa ez baimentzeko erabakiaren atzean ez dago Fracking-aren inguruko aldeko jarrera edo iritzirik, ez nire aldetik ez eta Zerbitzu Batzordeko beste kideen aldetik ere, izan ere denok baikara Fracking-aren aurkakoak (bide batez esan, Bozeramaile Batzarrak, aho batez hartu zuela iaz Eibar fracking gabeko hiri izendatzeko akordioa, eta nire alderdiak,

PSE-EEk, alde bozkatu ez ezik, mozioa ere aurkeztu zuen). Erabakiak hartzerako orduan gure iritzien gainetik jaien izpiritua eta plangintza errespetatzea ipintzen dugu, eta hala egin genuen. Horregatik, eskaerak ez zetozelako bat ez jaien izpiritua, ez eta plangintzarekin; horregatik eman genien ezetza. Ez dago besterik.

Arraten pankarta agertu zenean nire aldetik mehatxurik egon ez zen moduan. ERNAlri nire mezua helarazi zionak eta ERNAlk ondo dakien bezala. Beraz, ez dezatela gezurrik esan eta are eta gutxiago nire ahotan ipini esan ez dudana. Lasaitasun osoz eta mesedez egiten diet eskari hau eta hala egin nien pankarta kentzekoa.

Amaitzeko, gutunaren sinatzaileek jakin badakiten moduan, sinadura-bilketa errazte aldera hainbat aukera eskaini zitzaizkien, antolatze modurik ez omen zutelako, ezetz esan zieten. Beraz, Batzordean gustura asko aztertuko dugu, egiten baduzue, Fracking-aren aurkako sinadura-bilketa egiteko eskari berri bat, eta are eta gusturago emango diogu baietza eman badiezaiokegu.

PEDRO ESCRIBANO (ZERBITZUETAKO ZINEGOTZIA)

EIBARREN EUSKARAZ BIZI NAHI DUT

Eskerrak eman nahi dizkizuegu irailaren 20ko Euskaraz Bizi Nahi Dut azokan era batera edo bestera parte hartu eta prestaketan lagundu zenuten guztioi, bereziki: **Biraka** taldeari, Brigadako langile-

ei, Untzagako Jubilatuen egoitzari, Eibarko ikastetxei, **Badiharduguko** kamerari eta **Ikusten** ikus-entzunezkoiei.

EIBARKO EUSKALGINTZA



Euskara Elkarteak

ARGITARAZTZAILEA: ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** L. Iturbe
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
("...eta kito!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibariko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Herri bazkari solidarixua

Hurrengo asteburuan, urriaren 18xan, Herri Bazkari Solidarixua egingo da Untzagan, Alboan eta Egoaizia Gobernuz Kanpoko Erakundiak Aldatzen taldekuekin batera antolatuta. Antolatzaillien berbetan, "bidezko merkataritzako osagaixekin, arroza eta azukre-panela erabillitza, Eibarko alkarte gastronomikuak, beste hainbat erakunderekin batera, arroza eta azukre-panelezko postriak preparauko ditue Untzaga plazan eta, jatekua prest dagan momentutik aurrera, nahi daben jende guztiak plazan bertan egingo dan herri-bazkarixan dastatzeko aukeria eukiko dau".

Txartelak 10 euro balixo dau (7 euro ume, jubilaru eta langabetuendako) eta alde zuzenetik erosteko aukeria dago, Kultura, Koskor eta Guridi tabernetan, Villalba su-

permerkatuan, Mujika harategixan eta Arregi Dominguez arraindegixan edo, bestela, zuzenian antolatzaillieri telefonoz deittuta (Alboan Gipuzkoa, 943 27 51 73; Egoaizia 943 20 36 32; eta Aldatzen, 943 70 11 50).

Ekitaldixan Ramon Roteta, Euro-Toques alkarteko kidiak eta ETB-ko "No es país para sosos" saioko sukaldarixak parte hartuko dabela aurreratu dabe: "Sukaldari ezagunak 14.00etan hasiko dan bazkarirako arroza preparauko dau eta, horrekin batera, 12.00xetatik aurrera umieri sukaldaritzatzaillarra eskinduko detse".

Ekimena sustatu dabenen artian, bestiak beste, Eibarko udala, herriko hainbat alkarte gastronomiko, Auzolan eta Eibar Merkataritza Gune Irekia dagoz. Antolatzailliak bazkariari esker batzen daben di-



rua Piuran (Perun) garatzen ari diran proiektuetan erabilliko dabela azaldu dabe eta, horregaittik, jende guztia parte hartzera animau nahi dabe.

Garapen pertsonalari buruzko azokia

Udalaren ekimenez azaruari Garapen Pertsonalerako Azokia egingo da Untzagan, aurreko barixakuan prentsaurrekuan aditzera emon ebenez.

Akademixak daken eskintza ezagutzera emoteko asmua-rekin egindakuaren bidetik, datorren hillerako antolatu daben azokan "hobeto bizi-

tzeko lagungarrixak diran norberaren ahalmenak lantzen dituenen barri" emon nahi dabe. Azokia sanandresetarako ipiñiko daben karpabarruan egingo da eta horren harira hainbat hitzaldik osatutako programia be preparau dabe. Azokan parte hartzen egongo diran profesionalak eskinduko dituen hitzaldixak Portaleko aretuan egingo dira, aza-

ruaren 4an eta 11n. Bestiak beste, Isasi masaje zentrua, Adhara zentrua, Buruz burmuin gimnasia, Akorde coaching, Arrate Garitaonaindiaren psikologixa gabinetia, Miriam eta Amaia psikopedagogia zentrua eta Nutrieibar egongo dira hitzaldixak emoten zeñ hillarren 15 eta 16xan egingo dan azokan parte hartzen, baiña baten batek bere eskintza azokan ezagutzera emoteko interesa badaka, datorren astelehenetik aurrera eta hillaren 17ra arte Pegoran izena emoteko aukeria eukiko dau.



Aurreko barixakuko prentsaurrekuan aurkeztu zeben azaruari egingo dan Azokia. SILBIA HERNANDEZE

W. Orbeakuak edarto jaixetan

Aurreko asteburuan, zapatuan ondo baiño hobeto ibilli ziran Wenzeslao Orbea kalekuak, euren jaixak ospatzeko preparau zittuenetan parte hartzen. Goizetik ekin zetsen programiari, trikitilarixen saiua-rekin, eta hortik aurrera egun osuan egon zan zer egiñ, jai batzordiak preparau eban programia osatzen ebenen artian: bestiak beste, artisautza lanen erakusketia, umiendako eta nagusixendako jokuak, txorizo pintxo-potia, herri kirolak, patata-tortilla txapelketia eta bazkarixa, txokolate-jana, dantza erakustaldixa eta dantzaldixa.



Jaixetan hainbat sari banatu ziran parte hartzaillien artian. LEIRE ITURBE

Gripiaren kontrako txertua

Aste honetan, astelehenian hasi zan gripiaren kontrako txertaketa kanpaiñia. Jon Darpon osasun sailburuak aurkezpen ekitaldixan esan ebanez, "txertua da gaixotasun horri aurre egiteko dagan prebenziño-neurrik eraginkorra, bere eraginkortasuna %80 ingurukua da eta". Kanpaiñiako arduradunak azpimarratu dabenez, gripiaren kontrako bakunia arrisku taldiendako bereziki garrantzitsua da: 65 urtetik gorakue-dako, gaixotasun kronikuak (diabetesa eta biriketako, bihotzeko, gibe-leko zein gutzurruntako arazuak dittuenendako). Horrekin batera, aurtengo kanpaiñian haurdun dugu-zen andreri arreta berezixa eskindu detse. Kanpaiñia azaruaren 30ian amaittuko da eta txertua ipintzeko bakotxak bere medikuarengana jo biharko dau. Sailburuak jakinarazi ebanez, 380.000 txerto eskatu dit-tue, 1'2 millioi euro pagauta.




GRIPEAREN AURREAN, NEURRIAK HARTU TXERTOIA JARRI

IRAILAREN 29TIK AURRERA
Gripearren kontrako 2024ko txertaketa kanpaina
65 URTETIK GORAKO PERTSONENTZAT, GAIXOTASUN
KRONIKOAK DITUZTENENTZAT EDO HAURDUNENTZAT

Ireneo Lamas musikua hil da

Cielito Musika Bandako kiderik zaharrene-takua zan Ireneo Lamas eguaztenian hil zan



Mendaron, 83 urterekin. Bizitza osua musikari eskindu zetsan Ire-neok eta 18 urte bete zittuanetik Eibarko Musika Bandako kidea izan da, oin dala egun batzuk arte, osasun arazuak tartian, jotziari laga bihar izan zetsan arte. "Neok" sa-xofoia eta klarinetia jotzen zittuan eta, azken 15 bat urtiotan, Cieliton klarinetearekin jarduten eban. Sa-xofoia, barriz, bere ordu librietan jotzen eban. Horrekin batera, sa-xofoi eskolak be emoten zittuan.

Inmigraziñuari eskindutako jardunaldixak

Urrixan "Aurreiritziak eta estereotipoak desegiten" izenburuari jarraituta Inmigraziñuaren II. Jardunaldixak egingo dira. Udaleko Inmigrazio saillak eta SOS Arrazakeriak alkarlanian antolatutako progra-mak Portalean eskinduko diran hainbat hitzaldik, udaletxeko patixuan egingo dan eztabaida eta astelehenetik aurrera Untzagako jubilatu etxiak hartuko daben "Zurumuruak desegiten" izenburuko erakus-ketia hartzen dittu bere baitan. Bertan inmigrañterri buruz gehixen era-biltzen diren 10 zurumurreri buruzko informaziño-panelak egongo dira ikusgai, hillaren 29ra arte, astelehenetik barixakura 19.15etatik 21.15etara eta zapatu eta domeketan, barriz, 12.00xetatik 14.00etara.

Lehelengo hitzaldixa, bestalde, astelehenian egingo da, 18.30x-etatik aurrera, Portalean. Gorka Errasti inmigraziño teknikuak jardun-go berbetan eta, bestiak beste, atzerritaren inmigraziñuak Eibarren izan daben billakaeria, udaleko inmigraziño sailla bera eta eta inmigraziñuaren inguruko esperientziak azalduko dittuala aurre-ratu dabe. Beste bi hitzaldixak hillaren 14an eta 22xan izango dira, to-ki eta ordu berian.



autuan

ELEKTRONIKA IKASTARUA

Lehelengo ediziñuak izan eban arrakasta ikusitta, Armerixa Eskoliak atzera be Energixaren Elektronikan espezializatu nahi dabenendako ikastarua antolatu dau: "II. Energia alorrerako tresna elektroniko-koen garapenerako teknikaria" izenburukuan izena emon nahi dabenak urriaren 10era arte eukiko dau horretarako aukeria, Lanbideren sarera sartuta. Klasiak urriaren 20xan hasi eta ekaiñaren 3an amaittuko dira eta 15.30xetatik 20.00etara bittartian emongo dittue. Ikasliak praktikak egingo dittue (ekaiñaren 4tik uztaillaren 14ra bittartian) eta ikastarua %100 diruz lagunduta dago. Informaziño gehixago eskatzeko ikastaroak@armeriaeskola.com helbidera idatzi edo 943203244 telefonora deittu leike.



KANPOSANTUKO ORDUTEGIXA

Urrixan hasi eta martxoa amaittu arte kanposantua zabaltzeko ordutegixa hau izango dala emon dabe aditzera: astelehenetik zapatura, goizeko 10.00etatik arratsaldeko 18.00etara zabalduko dittue atiak eta domeka eta jai egunetan, barriz, 10.00etatik 14.30xetara.



S. VALLEJOEN LAN BARRIXA

Iraillaren 25ian aurkeztu eban Juan Sanchez Vallejo psikiatruk eta Ezkerrako kidiak bere lanik barrixena Bilbon: beste egile batzurekin alkarlanian idatzi daben "Antologia de la violencia de genero" izenburuko liburua.

asteko
37.980
datua

lagunek, eguneko 380k erabili dabe kanpoko igerilekua aurten, iaz baiño gitxiagok (41.010); eguzkiza lagun, iazko julixuan 26.638 lagun ibilli ziran eta aurten, barriz, 11.876; jende gehixen (1.490) egon zan eguna uztaillaren 17xa izan zan.

Gure Balioak 2014 sarixa aukeratu dabe

Eguaztenian batu zan Gure Balioak sarixaren epai-mahaixa, bosgarren ediziño honetako irabazlia zein dan aukeratzeko, baiña aukeratu dabenaren barri izateko azaruaren 5era arte itzain biharko dogu, egun horretan Murtrikun egingo dan sari banaketa ekitaldixan emongo dabelako aditzera aurtengo irabazlia zein izan dan.

Epai-mahaixa osatu daben zortzi lagunak Debarrenekuak dira edo, bestela, gure eskualdiarekin lotura estua dake eta enpresa, kultura eta gizarte arluetan dihardue: Carmelo Urdangarin (2013ko Gure Balioak Sarria), Juan Angel Balbas (Debegesako zuzendari nagusixa), Jesus Mari Astigarraga (Herritarren Foroko kidia), Odile Kruzeta (EITBko irratixen zuzendarixa), Begoña Mugerza (Elgoibarko zaharren egoitzako zuzendarixa), Jesus Gutierrez (historialarixa), Jordi Gorritxategi (Izarra Fundaziñoeko zuzendarixa) eta Imanol Ulazia (EHU-ko



Iazko ediziñuan Carmelo Urdangarin debarrek jaso zeban Gure Balioak sarixa.

ikertzaillia eta ekintzailtza gaxetan aditua). Datorren hillian banatuko daben sarixa Debegesa garapen agentziakuak lantzen dabizen Gure Balioak proiektuaren testuinguruan kokatu bihar da eta gure eskualdiaren garapen jasangarria lortzeko biharrezkuak diran gizarte bali-xuak sustatzia dake helburu. Irabazliak Juan Luis Baroja Collet eskultoriak sortutako brontzezko eskulturia jasoko dau.



Irailleko 1.000 eurua banatu dittue dendarixak

Aurreko barixakuan egin eban Eibarko Dendarien Elkarteak bezeruen artian 1.000 euroko txekia banatzeko hilleroko zozketia: irailleko sari-duna erretratuan ikusten dozuen Angel Francisco Cano Hazas izan da. Martitzenian bertan jaso eban sarixa, Azittaingo gasolindegixan. Zorionak!



Aurten be paella janarekin amaittuko dira jaixak. LEIRE ITURBE

San Miguel jaixen errepikapena

Astelehena San Miguel eguna izan zan eta, urtero lez, Agiñagan jaixa ospatu eben horretarako aukeria euki ebenak behintzak. Halanda be, astelehenian ospatu barik geratu ziranak asteburuan, bixar eta etzi ospatzeko aukeria eukiko dabe, Agiñagako jai batzordekuak egun bixetarako ekitaldixak antolatu dittue eta: zapatuan, 17.00etatik aurrera, briska txapelketia jokatu dabe izena emoten dabenak (12 euro). 17.30xetan, barriz, umiendako jolasak eta txokolate jana preparau di-

ttue eta 21.00etan afarixa hasiko da Ixuan. Afalostian Larrañagak eta Narbaizak bertso saiua eskinduko dabe eta, zapatua agurtzeko, 23.00etatik aurrera erromerixia eskinduko dabe Kupa taldekuak. Domekan goizetik egingo dira San Miguelen omenezko ekitaldixak: 11.00etan mezia ospatuko dabe, 12.30xetan Gorriti eta bere animalixak aillegauko dira eta, jaixak agurtzeko, 14.30xetatik aurrera Gardokik alaittuko daben paella jana antolatu dabe.



Bihar Debabarreneko Azoka Ekologikoa hartuko du Urkizuko parkeak hirugarrenez, Eibarko Udalak, Debemenek eta Biolurrek antolatuta. Azokako postuak hartuko dituen karpak doazenez gure herrian eta ingurukoetan modu naturalean ekoitzen diren produktuak ezagutu eta erosteko aukera izango dute goiz osoan. Arratsalderako, berriz, dastaketa saioa antolatu dute. Aurtengo egitaraua biribiltzeko, antolatzaileek bisita bi prestatu dituzte. Biharko azokan parte hartuko duen Aza Ta Porrúa elkartearen berri eman digu bazkideetako batek.

IRATXE UNANUE (Aza Ta Porrúa):

"Produktu ekologikoek ondo jaten dugun segurtasuna ematen digute"

- Beste urteetan bezala, aurten ere azokan izango zarete. Zer eskainiko duzue?

Elkartek eskaintzen dituen produktuak erakutsiko ditugu, baina batez ere interesa dutenei elkarteak ezagutzera ematen ahaleginduko gara. Aza Ta Porrúa produktu ekologikoen kontsumoan eta horien hedapenean interesatuta gauden kontsumitzaileek osatzen dugun taldea da. Gure inguruko ekoizleekin harreman zuzena sustatzea eta indartzea interesatzen zaigu bereziki eta bazkideetza bitartez funtzionatzen dugu. Hau da, elkarteko kidea izan nahi duenak hainbat baldintza bete behar ditu: 30 euroko sarrera kuota ordaintzea eskatzen dugu eta, horrekin batera, lokalaren kuota (12 euro hileko) ere eskatzen zaio. Elkartearen egonkortasuna ziurtatzeko, bestalde, bazkideei kontsumoari begira gutxienezko konpromisoa izatea eskatzen zaie.

- Eta zer eskaintzen zaie elkarteko bazkideei?

Bazkideak, trukean, astero Eibarren produktu ekologikoak erosteko aukera dauka, Juan Gisasola kaleko 10ean elkarteak duen lokalean. Astean birritan, astelehen eta eguenetan 17.00etatik 20.00etara egoten gara bertan. Egun horietan hurrengo astean jasotzeko produktuen eskaerak jasotzen ditugu: Eibarko Sosola baserriko ogia, esnea, gazta eta behi esnearekin egindako jogurtak eta Itziarko Doniene Berri baserriko arrautzak eta barazkiak. Sasoiaren arabera laranja, mandarina, okela eta beste hainbat produktu eskatzeko aukera ere izaten

da. Eskatu beharreko horiez gain, beste produktu asko izaten ditugu dendan salgai: barazkiak, marmeladak, eztiak, fruta, fruitu lehorrak, kafea, arroz eta arto tortitak, zerealak, lekaleak, ardoa, garagardoa, zukuak, algak, azukrea, txokolata, tofua, tofu handurgesak, tofu saltxitxak, oliba olioak... denetarik erosteko aukera dago.

DEBABARRENEKO III. ASTE EKOLOGIKOA

- Urriak 4, zapatua

10.00etatik 14.30etara.- Azoka ekologikoa: ardi, ahuntz eta behi gazta, haragia, barazkiak, arrautzak, ogia eta pastelak, eztiak, marmeladak, sagardoa eta sagar zukua, olioak, gatza, taloak eta hazi jangarriak.

11.00.- "Merienda osasuntsua" tailerra, Aza ta Porrúa elkarteko eskutik.

15.00.- Azokako parte-hartzaileen bazkaria.

18.00etatik 19.30etara.- Bertako baserrietan ekoiztutako produktu ekologikoen dastaketa. Abeltzaintza produktuak: esnea, jogurta eta gazta, tomateak, ogia eta sagardoarekin batera. Produktu hauen ezaugarriak azaldu eta ekoizpenaren inguruko argibideak emango dira. Urkizuko parkean (karpak).

- Urriak 9, eguena

16.00.- Izena eman duten baserriarrei zuzendutako bisita, Olaberriko Etxeberri Goikoa baserrira, abeltzaintza ekologikoa eta dibertsifikaziorako ereduak ezagutzeko.

- Urriak 11, zapatua

10.00.- Kontsumitzaileei zuzendutako bisita, Eibarko Sosola baserrira, bertako abeltzaintza eta ogi ekologikoa ezagutzeko.

- Azken urteotan etiketa ugari ipintzen zaizkio jatekoari. Ekologikoa esaten duzunean, zer esan nahi duzu zehazki?

Egia da hau guztia pixka bat modan ipini dela, baina produktu ekologikoak direla esatean pestizida eta horrelakoak erabili barik, ahalik eta modurik naturalenean hazitakoak direla esan nahi dugu. Eta, horrekin batera, ahal den neurrian gu gauden tokitik gertuen ekoiztutakoak izaten ahalegintzen gara. Urte osoan denetarik jatera ohitu gara, baina ohitura hori aldatu daiteke eta urte sasoi bakoitzean horri dagozkion produktuak jaten ikasi.

- Oro har, jaten dugunaren inguruko gure kezkek gora egin duela uste duzu?

Denetarik dago, batzuk jatekoari asko begiratzen diote eta beste askok, berriz, ez diote aparteko arretarik ipintzen, berdin die zer jaten duten. Guk, behintzat, etxera eramaten ditugun produktuak beste toki batzuetan saltzen dituztenak baino naturalagoak eta garbiagoak direla badakigu eta horrek ondo jaten dugun segurtasuna ematen digu.

- Produktu ekologikoak besteak baino askoz garestiagoak direla uste dute askok. Egia da hori?

Garestiagoa bada, azken batean ekoizpena naturalagoa izateak produkzioa txikiagoa izatea dakar eta horrek beti eragiten du prezioak gora egitea. Hala ere, gurean saltzen direnak beste denda ekologiko batzuetan baino zerbait merkeago eros daitezke.

Lanian buru-belarri dabiz azken egunotan armen erakusketa barrixa prestatzen. Iraunkorra izango dan erakusketa hori datorren eguaztenian zabalduko da, 19.30xetatik aurrera. Aurretik, ordu erdi lehenago, Udalak omenaldi apala egingo detse lehelengo Museuaren aitzindarixeri. Hurrengo egunian "Eibar Universal. Historia de una coleccion" hitzaldixa eskinduko dau Nerea Alustizak, hori be 19.30xetan. Eta egun horretan eta ondorengo hiruretan (hillaren 9tik 12ra) ate zabalen jardunaldixak izango dittu Museuak. Hillaren 23an bigarren hitzaldixa jarraitu ahal izango da, Jesus Gutierrezen eskutik: "Una industria, una villa. Eibar en 1914". Aittatutako ekitaldi danak ordu eta toki berian izango dira: Portalean, 19.30xetan. Aurtengo urte berezixaren ekitaldixeri amaieria emoteko, azaruaren 27xan, "Eibar Industriala 2014" gure herriko gaur egungo errealidade industrialaren eskaparatia erakutsiko da Museuan.



ARMA Museuaren urrtiak ospatzen

Mendia bete zan San Juan egunian Armeria Eskola inauguratu zala, Eibarko Txikiton urte bi egiñ ondoren. Orduan bertan osatu zan Museua, bi helbururekin: bata, pedagogikua; bestia, erakusleho moduan. Museo hori osatzeko, Gerra Ministerio-ora eta armeruen eta euren famelixengana jo zeben. 1937xan, Parisen egin zan erakustaldirako, hainbat arma urten ziran hamendik, baiña bidian galdu ziran, handik urte batzuetara errekuerauko ziranak. Armeria Eskolan iraundako hórrek urtiotan hainbat bultzada ezagutuko zittuan Museuak, baiña "beti be jendiandako itxitta eta ordutegirik bakua". Dana dala, Marina Barrena Eibarko Museo-ko arduradunak diñuan moduan, "atzerrixan oihartzun haundixa izan dau gure museuak; halakuak askorik be ez dagualako, militarrek kenduta".

1962xan batzordia osatuko zan eta, Jose Ormaetxearen eskutik, Armagintza Museua indartzeko hainbat eskutitz bialdu ziran "mundu osora" armak eskatzen. Holan, berreskuratu ziran armekin batera, "Marrueko espingardak, Greziako armak, ehizarako beste batzuk..." jaso ziran eta 1964an armen katalogo barrixa egin zan, 1914kuari jarraipena emongo zetsana. Handik 20 urtera, Ramiro Larrañaga eta Juan Luis Calvoren eskutik, Juan San Matinen laguntzarekin, azken katalogua egingo zan, zerrenda zihartzagurekin. 80. hamarkada horretan be osatu eben Damaskinatuaren Patronatua, lan arlo hori sustatzeko asmuarekin, eta hainbat erosketa burutu ziran.

2000. urtian Armeria Eskoliak Museua Udalarri bueltatzia erabagiko dau (ikastetxia udal ekimenak bultzatuta egin zan), urte hartan egin zan erakuske-

taren bueltan. Handik zazpi urtera, 2007xan, inauguratu zan barrixa Portalean, 300 metro karratuko espaziuuan, 200 armekin. Jakiña, arma guztiendako toki-rik ez eta asko gordeta laga bihar: "Armeria Eskolako 400-eri, erosittakuak eta donaziñuak gehittuta, 500en bat baeguazen, gero Star enpresaren fondotik jasotakuen aurretik", diosku Marina Barrena udal Museo-ko arduradunak. Oiñ arteko erakusketa horrek izaera pedagogikua izan dau, batez be: Eibarko armagintzaren historia kontatzen zeban bittartian, armetan emondako ebolu-ziñua be emon dau aditzera.

200 arma barri erakusketan

Oin inaugurau bihar daben erakusketa barrixan 250 arma erakutsiko dira, euretako 200 oiñ arte erakutsi bakuak. Espoziñua sistemeri jarraituta banatuko da: holan Gerra Zibillian



Oiñ arte erakutsi gabeko armak ikusi ahal izango dira.

erabiltatuak egongo dira, II. Gerra Mundukoak diranak... Prototipueri eta arma berezixeri be garrantzixa emongo jake, *"bai produkziño txikixa izan dabelako, talde zihetz batzuk erabilli dittuelako, bakarrak diralako edo entseguetan geratu diralako"*. Eskinduko dan informaziñua teknikuagua eta aberatsagua izango da, *"adituentzako erabilgarriagua egiñaz. Lehengo esposiziñua errazagua zan moduan, oingua jende espezializatuarendako prestau dogu"*, diñoskue Museokuak. Badago-eta "museo espeziali-



Marina Barrena museuan juango diran pieza batzuk aukeratzen. SILBIA HERNANDEZ

zatuagua" eskatzen zeban jendia; jakiña, gaiñera, *"ez daguala halako museorik inguruan"*.

Eta honetako aurtengo barritasunekin hasteko, ekaiñian Arma Museoko armagintzako lehelengo katalogua jarri zeben on-line. Uztaillian, bestalde, "Martinek armagiña izan nahi dau" kuaderno ilustraua, "gero jokua be bihurtu leikiena". Esposiziñua montatzeko lanetan, arma modernuetan oso jantzitta dagan Jose Luis Valenciaga izan dabe lagun: *"Esan geinke bera dala erakusketako komisarixua"*, diño Barrenak.

Martxotik dabiz esposiziñua prestatzen, oiñ azken sprintari ekin bihar badetse be. Tarte horretan hainbat armetako selekziño eta dokumentaziño lanak burutu dittue, segurtasun neurrixena ahaztu barik: *"Guardia Zibillak gertuko kontrola egitten desku eta alarmak ipiñi eta halako segurtasun neurrixeri aurre egin bihar izaten detsegu"*.

Bakarra bere arluan

Esposiziño honek bost bat urte iraungo dabela diño Marina Barrenak, *"gero beste arma batzuk*

aukeratu eta aldatu aurretik". Guztira 940 bat arma dittue bilduta, *"danak udal fonduarenak, aurretik Bilboko Euskal Museotik ekarritakuak eta gaur egungo armagiñak lagatakuak izanda be"*. Arma horren artian bat aukeratzia gatxa egitten jakon arren, *"Kalsnikov-ak, subfusil prototipo batzuk eta XX. mendeko hasierako Eibarko arma batzuk"* nabarmenduko leukez Barrenak. Esate baterako, Star itxi aurretik hamar pistolarako egindako prototipuaren materixala be badake.

Gure herriko Armagintza Museua Euskal Herriko hirugarren udal museua dogu, *"1912-13 urtetan inaugurau zittuen Bilboko Arte Ederretakua eta Donostia-ko San Telmokuaren ondoren"*. Estatuan eta inguruan halakorik ez daguala diñosku Museoko arduradunak, *"museo militarrik kenduta"*. Gasteizeko Museo Militarra, esaterako, gehixago dago zentrauta uniforme, jantzi eta beste arlo batzuetan armetan baiño.



Damaskiñatzailleri eskindutako txokua.

Azarian "Eibar Industrialia"

Hamendik bi hillabetera gure herriko gaur egungo errealdade industrialia islatuko daben beste esposiziño bat zabalduko da: *"Eibar Industrialia 2014"*, oin dala mende bat Eibarrek hartu eban entzutetsuaren jarraipena izango dala. *"Hori bai, harek Gipuzkua osua hartu eban erreferentzia moduan eta hau gure herrixan zentrauko da"*, diño biharrian jarraitzen daben Marina Barrenak.



Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



Ireneo Lamas

Eibarko
Musika
Bandako
kideek
gogoan

Arkitekto Teknikoa eta eraginkortasun energetiko eta erabilera berriztagarrien arloetan aditua da Iñigo Retegi. Arkitektuak Europako Batzordeko Enpresa eta Industriako Zuzendaritza Nagusian eta Belgikan jardun du beharrean eta, gaur egun, Jon Beneitez eta Nagore Fernandez arkitektuekin batera, Arkigreen proiektuan dihardu. Eguaztenean Madrilen egon zen Innpulso Sareko Ekintzaileen I. Topaketan eta horren berri eman digu.

- Nolatan joan zara Madrilgo jardunaldi horretara?

Innpulso Sareak antolatuta, ekintzaileak eta sare horretan dauden herrietako udalak batzeko topaketa egin zen. Estatuako 35 herritako ordezkariak egon ginen parte hartzen eta Eibarko udalak gure herria ordezkatzeko gu aukeratu gintuen, Ekingunek antolatutako On Ekin! lehiaketan sari nagusia Arkigreen-ek jaso zuelako. M^a Jose Telleria Garapen Ekonomikoa, Berrikuntza eta Enplegu batzordeburuak lagunduta joan ginen Madrilera, gure proiektuari buruzko azalpenak eman eta besteen aurkezpenak entzutera.

- Nolako esperientzia izan da?

Egun osorako egitaraua prestatu zuten. Ana Botella alkateak aurkezpena egin eta, jarraian, herri bakoitzeko biztanle kopuruaren arabera antolatutako hiru bloketan, txikienetik hasita herri bakoitza ordezkatzera joandakoek bost minutuan bakoitzaren proiektua aurkezten joan ginen. Parte-hartzeileek azaldutako proiektuak anitzak izan ziren: injeniaritzari lotutakoak, dietetikaren ingurukoak, nekazaritzarekin zerikusia zutenak, internet bidezko salmenta hobetzera bideratutakoak, mugikorren aplikazioak garatzen zizutenak...

- Entzundakoen artean zerbaitek atentzioa deitu dizu?

Proiektuetako bat bereziki kuriosoa egin zait: kobrea ez lapurtzeko sistema aurkeztu dute batzuek eta bitxia suertatu zait.

- Eta nola aurkeztu duzue Arkigreen?

Gure proiektuaren ardatza energia berriztagarriaren inguruko arkitekturak osatzen du. Arkitektura arloko proiektuak eskaintzen ditugu, baina bezeroari eskaintzen dizkiogun konponbide teknikoak energetikoki jasangarriak dira, horrek ematen die balio berezia gure proiektuei.

- Europako beste herri batzuekin alderatuta, horrelakoak nahiko berriak egiten zaizkigu, ezta?

Bai, nik hiru urte eman ditut Belgikan arlo honetan beharrean eta gu baino askoz aurreratuago doaz. Ez dakit zergatik, baina hemen horrelakoak ezartzea beste baatzuei baino gehiago ari zaigu kostatzen.

- Arkitektura proiektu bat energetikoki jasangarria izateko diru asko behar da?

Eskala txikian aplikatzeko dirua baino gehiago joerak aldatzen joatea behar da. Izan ere, horrelako proiektuek dirua eta energia aurrezteka ekartzen dute eta inbertsio txikia eginda asko hobetu daiteke.



JON BENEITEZ eta NAGORE FERNANDEZ-ekin



Iñigo Retegi
(ARKIGREEN)

"Inbertsio txikia eginda asko hobetu daiteke"

Asier Serranoren 3 diskoak

"Ez Esan Inori" "Gerrari bai" "Hoteleko kantuak"

10 eurotan ...eta kitto-ko bulegoetan

Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Kontzertu hirukoitza Txaltxa Zelaian

Urteroko moduan, Legarreko musika lokalak kudeatzen dituen Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak kontzertua antolatu du, lokaletan ensaiatzen duten hiru talderekin: Garrapata, Ekinocio eta Skapital City taldeak bata bestearen atzetik kontzertua ematen arituko dira bihar gauean, 22.00etatik aurrera Txaltxa Zelaiko kioskoan emango duten kontzertuan.

Punk estiloari jarraitzen dion Garrapatak hamar urteko ibilbidea egin du eta taldearen izeneko albuma ere eman du argitara. Ekinocio taldeak, berriz, trash metal musika jotzen du. Eta kartela osatzen duen hirugarren taldea, Skapital City orain dela urtebete eskas sortu zuten ska musika gustoko duten zazpi gaztek. Uda honetan eman zuten lehen kontzertua, Errioxa aldean, eta bihar jardungo dute estreinekoz Eibarren.



Ekinocciok hartuko du parte bihar gauean Txaltxa Zelaian, Skapital City eta Garrapata taldeekin.

Autoenplegua sustatzeko jarduerak Unin



Debegesako Vanesa Hortasek gidatu zuen ekintzaileentzako saioa aurreko barixakuan.

Uni Eibar-Ermua BHI ikastetxeak, azken ikasturteotan egindako-aren bidetik, ikasleen artean autoenplegua bultzatzera bideratutako jarduerari arreta berezia eskaintzen jarraitzen du kurtso honetan ere. Ikasturtea hasi eta berehala, Unin Administrazio eta Finantza zikloetako 2. maila ikasten ari direnekin sormena sustertzeko jardunaldia egin zuten Ermuko Izarra zentruan eta, besteak beste, "Jar zaitetz martxan" proiektuari jarraituta negozio ideia berriak sortzeko tailerra garatu zuten.

Aurreko barixakuan, berriz, Eibarko ikastetxean gai berari eskainitako beste lan-saio bat garatu zuten. Vanesa Hortas, Debegesako Enpresa Proiektu Berriei laguntzeko saileko arduradunak gidatu zuen saioan, hezkuntza arloan ekintzaileek betetzen duten tokiaz eta horrekin lotutako beste hainbat inguruan jardun zuten saioan parte hartzen egon ziren Formakuntza Zikloetako ikasleek.

Surf-ean trebatzen

Orain dela egun batzuk La Salle Azitaingo 4. DBH-ko ikasleak Zarautzen egon dira, surf ikastaroa egiten. Ikastetxeko arduradunen berbetan, "ikastaroan, besteak beste, oholaren erabilera, mantenua, segurtasun neurriak, erropak eta olatu motak azaldu zizkieten ikasleei. Horrekin batera, hondarretan hainbat ariketa egin zituzten". Horiek amaitu eta jarraian, uretan sartu eta entzundako guztiak praktikan ipintzeko aukera izan zuten ikasleek.





- **tartak**
- **enkarguak**
- etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

espezializatutako akademia

ZERBITZUAK

➔ Eskolarako laguntza / Auto-Instrukzioak
Tratamendu psiko-educatiboa / Familiendako teknika eta estrategiak / Proba pedagogikoak

IKASTEKO TEKNIKAK

➔ Atentzioa eta kontzentrazioa / Jokaera aldaketa / Memorizazioa / Ikasteko teknikak

IKASTEKO ARAZOETAN ADITUAK: Lengoia garapenaren desorekak
Jokaera desorekak / T.D.A.H. / Dislexia / Diskalkulia

ZERUKOA KALEA (ERMUA) 690-703064

Zuloagatarren kaleko eskaparate gaiñian "Valenciaga" diñuen letrak segitzen dabe, baiña badira egun batzuk barruko lokala hustu eta dendan saltzeko zittuen guztiak Calbetonera eruatzen hasi zirala, prezio berezixan salgai ipintzeko. Oin dala urte batzuk Julita ahizpa nagusixak egiñ eban moduan, egun gitxi barru Arrate jubilaue egingo da eta horrekin batera Valenciagak bere historixaren zati bateri agur esango detsa. Baiña Valenciaga abizenaren sokia ez da hor etengo, dendako neska bixak negozixuarekin segiduko dabe eta.



Julita lehelengo eta oiñ Arrate jubilaue be, dendiak aurrera egingo dau. FELIX MORQUECHO

Valenciaga-k etapa barrixari ekin detsa

JULITA ETA ARRATE VALENCIAGAREN GURASUAK EKIN ZETSEN BIDIARI, "gerria amaittu zanian, oin dala 75 urte denda zabaltzian. Udalak salmentarako departamentuak preparau zittuan eta gure aitta horretako batian mahoiak, artilliak eta horrelakuak saltzen hasi zan. Orduan sasoian denetarik bihar zan eta hórrek saltzeko dendak zabaltzen hasi ziran. Handik pixka batera aittak trikotosa bat erosi eban eta gurasuak horrekin pasatzen zittuen arratsaldiak. Aittak makiñarekin puntua egitten eban eta berak egindakuak amak josi egitten zittuan gero. Eta horretan jardun eban, 1944an oiñ Calbetonen guk bete dogun lokal hau erosi arte. Orduan sasoian zaldixakin ibiltzeko kotxia gordetzen eban hamen".

Denporiak erropa denda bihurtu zan dendia, baiña horren aurretik denetarik saltzen ebela kontau desku Arratek: "Jostailuak, bitxixak... saldu biharreko guztiak saltzen zi-

ttuen hasieran. Orduan sasoian hasi giñan Gabon bezperan gaberdirarte dendan geratzeko ohitturiakin. Izan be, gurasuak umieri oparitzeko jostailuak orduantxe erosten zittuen".

Urtiekin ahizpa bixak gurasueri errelebu egin zetsen eta dendiare ardura guztia bixak hartu eban, oin dala 25 urte. Horrenbeste urtian zabalik egon eta gero, ez da harriztekuia Valenciaga dendia asko- rendako instituziñua izatia.

Bezeruen artian denetarik euki dabela diñosku Arratek: "Bihargiñak eta dirudunak, bixetatik etorri jakuz dendara. Bandera eta kolore guztietako bezeruak euki doguz. Hori bai, geuriak oso bezero fidelak eta onak izan dira, etxe-etxeuak. Gurian famelixa osuak hartu dittugu, okasiño berezixetarako goittik behera janzteko. Konfidantza osuarekin etortzen jakuzen eta geu be ahalik eta onduen erantzuten ahalegindu gara beti, kalidadezko

gauzak salduta eta erosliari salmenta osteko zerbitzu egokixa eskinduta".

Bizi guztia dendan emon eta gero, urte onak eta ez haiñ onak ezagutu dittue Valenciagan: "Krisi bat baiño gehixago ezagutu dogu. Baiña Eibarren horrenbeste industria egotian, batek ez zekanian bestiak zekan. Oingo krisi honetan, baiña, dirua dago faltan eta horrek daneri eragiten detse. Baiña hau be pasauko da, gure amak esaten eban moduan: apurtu dabenak konpondu biharko dau, gugandik bizitzen segidu nahi badau behintzat' eta bixen bittartian noiz konponduko daben zaiñ egotia tokatzen jaku".

Eroslien ohitturak eta beste-lakuak be asko aldatu dira, baiña sasoian sasoikora moldatzen jakin dabe: "El Corte Inglesa zabaltziarekin batera, beste herri batzuetatik gurera erostera datozenen kopuruak gora egin dabela ikusi dogu. Gaiñera, etortzen jakuzenetako asko baten

batek gomendatu detselako datoz eta hori gauza haundixa da gero!". Hori lortzeko, baiña, urtietan gogotik biharrian jardun dabe ahizpa bixak: "Desfilietara juan, modak zer agintzen daben... horrek guztiak zaintzen ahalegindu gara beti. Iñoiz modari berari aurria hartu izan detsagu be, pentsa!".

Edozelan be, Julita eta Arrate jubilaue be Valenciaga dendiak aurrera egingo dabela argi laga desku: "Neska bixak, Pilik eta Mari Josek oiñ arteko martxari segiduko detse. Bizitza osuan gurekin batera biharrian egon dira bixak, bata 41 urtian eta bestia 37 urtian. Ilusiño haundixa dake bixak eta, gaiñera, jendiak dendiarekin segitzeko zelan eskatu detsen ikusitta, aurrera egitteko animauta dagoz bixak. Lau astian Calbetonen egongo da dendia eta, gero, Bidebarrietara, Gisasola sastrerixia egon zan tokixan zabalduko dabe dendia, bezerueri betiko kalidadia eta zerbitzua emoteko".

GOIZEZ:
12.00etatik 14.30etara

ARRATSALDEZ:
19.00etatik
amaitu arte

Edalontzi salmenta
18,30etan hasiko da



Txotx!



ALORRENEA · ALTZUETA · BARKAIZTEGI · BEGIRISTAIN · EGI-LUZE ·
GARTZIATEGI · GAZTAÑAGA · GURUTZETA · ISASTEGI · OLAIZOLA ·
SARASOLA · ZAPIAIN · ZELAIA

Urriak 4 zapatua



OKINDEGIA

URKO



BI **TIKET** MOTA
IZANGO DIRA:

6 eurokoa

(edalontzia, zapia,
pintxoak eta nahi
beste sagardo)

1'5 eurokoa

(pintxoak: txorizoa edo
gaztaia eta menbriloa)



21. edizioa →



EIBAR - REAL MADRID

2 SARRERA ZOZKETATUKO DIRA



0,50 €
(rifa bakoitzeko)
Zozketa 21,00etan

1993an ekin zion ...eta kitto! Euskara Elkarteak Sagardo Eguna antolatzeari. Lehenengo urteetan eguerdian egiten zen, baina **1997an** lehenengo aldiz arratsaldean antolatzen hasi zen.

ISASTEGI

GURUTZETA

GAZTAÑAGA

GARTZIATEGI

EGI-LUZE

BEGIRISTAIN

O LAIZOLA

SARASOLA

ZAPIAIN

ZELAIA

BARKAZTEGI

ALTZUETA

ALORRENEA

PINTXOAK

SUKALDEA

**SAGAR
ERAKUSKETA**

TIKETAK

BASOAK

UDALETXEA

2.340 sagardo botila → 200 kg. txorizo → 15 kg. gazta → 60 lagun lančan



1998

Sagardo Eguna gehienetan Untzagan egin da. Hala ere, **1998** eta **1999an**, Udaletxeko obrak zirela eta, Toribio Etxebarria kalean egitea erabaki zen.



2003

Orokorrean eguraldia gure alde izan badugu ere Sagardo Egunean, izan dira eguraldi txarreko egunak ere: **2003** eta **2005**. urteetan, esaterako.

sagardo eguna



2009

2009. urtean lehenengo aldiz, egun osoko ekitaldia egitea erabaki zen, Oreretan egiten den Sagardo Eguneko esperientzia gertutik ezagutu ondoren. Aldaketa nabarmenak egin ziren urte horretan; esate baterako, sagardoa egiteko erabiltzen diren tresnak ikusteko aukera izan genuen. Hurrengo urtean, 2010ean, sagar-batzea irudikatu zen.



2011

2011an Gorenak Sagardoak markako lagunekin elkarlana hasi zuen ...eta kitto! Eukara Elkarteak. Urtero berritasunak sartzea da helburu. Aurtengo berrikuntzak: sagardoari buruzko erakusketa eta sagar kata (Sagardo Eguna baino egun batzuk lehenago); selfie-a eta Eibar-Madrid partidurako sarreren zozketa, egunean bertan.



13 sagardotegi Gorenak

Alorrenea (Astigarraga) Altzuetza (Hernani) Barkaiztegi (Donostia) Begiristain (Ikaztegieta) Egi-Luze (Errenteria) Gartziategi (Astigarraga) Gaztañaga (Andoain) Gurutzeta (Astigarraga) Isastegi (Tolosa) Olaizola (Hernani) Sarasola (Asteasu) Zapiain (Astigarraga) Zelaia (Hernani)

Eguneko kronika osatzen lagundu sare sozialetan #Sagardo Eguna erabilita

Bihar eguerdian, txotxarekin batera, sagardoaren inguruko jaiak eztanda egingo du Untzagan. Urteak joan urteak etorri, urriko lehen zapatua askoren agendetan aparteko garrantzia duen eguna bilakatu da eta, horregatik, egun osoan zer nolako giroa dagoen eta bestelako guztiak zuzenean kontaktzen joateko ahalegin berezia egingo dugu aurten ere, horretarako sare sozialak erabilita.

Laugarren urtez jarraian, ...eta kitto!-ren Facebook orrialdean (www.facebook.com/etakitto -aldizkaria) zein Twitter kontuan (@etakitto) eguneko kontakizuna egiten joango gara, baina betikomoduan, zeregin horretarako zuen laguntza eskatu nahi du-

gu. Izan ere, Untzagan uneoro gertatzen ari dena kontatzeko zein egokiago bertako sagardo jaiaren buru-belarri murgilduta zaudetenak baino? Horregatik, zuetariko bakoitza Sagardo Eguneko "korrespontsal" izendatu nahi zaituztegu, gurekin batera Facebook eta Twitterren egunaren gorabehera guztien berri ematera animatu zaitezten.

Aurreko urteotan zuen parte-hartzeari esker egunari buruzko kronika polita osatzea lortu genuen eta oraingoan ere hala izatea nahiko genuke. Eta nola har dezakezu parte? Ba oso modu errazean: zuetariko gehienek telefono mugikorra aldean eramango duzue, sare sozialen bitartez eta #SagardoEguna hitz gakoa erabilita gurekin zuen burutzioak zein egiten dituzuen argazkiak partekatu ditzakezue. Zein da gehien gustatzen ari zaizuen sagardoa? Zeinekin batera diharduzue jaiaren parte hartzen? Zelako giroa dago zuen inguruan?

#SagardoEguneko "selfiak"

Aurten, baina, egiten dituzuen argazkiek baldintza bat betetzea eskatuko dizuegu: azken aldi honetan moda-modan ipini dira norberak bere buruari egindako argazkiak edo "selfie" direlakoak eta guk ere moda horrekin bat egin



...eta kitto! @etakitto · urt. 5
Guk ere bai RT *@aszkue: #SagardoEguna Atsegin dut! pic.twitter.com/le7aMUJNRP
← Erantzun ★ Gogokoa

Aurten gurekin partekatzen dituzuen argazkiak horren modan dauden "selfiak" izatea eskatzen dizuegu.

nahi dugu. Horregatik bihar horrelako argazkiak egin eta gurekin partekatzea eskatzen dizuegu.

Egun osoan udaletxeko baloitik berbetan jardungo duen esatariak tarteka zuek bidalitakoei errepasoa emango die megafoniatik eta, jakina, www.etakitto.com webgunean Sagardo Egunaren berri emateaz gain, aldizkariaren Facebook eta Twitterrean zuek bidalitako komentario eta argazkiak jasotzen joango gara. Eta zuen laguntza eskertzeko, parte-hartzen duzuenen artean zozketa egingo dugu, saria banatzeko: irabazleak Gorenak elkarteko 13 sagardotegietako botila bana jasoko du. Zozketa urriaren 8an, datorren eguaztenean egingo dugu. Izan ere, urtero egiten dugun moduan,

datorren asteko alean errepasoa egingo diogu bihar Untzagan gertatutako guztiari eta tartean zozketa horren berri ere emango dugu.

Zuek bidalitako argazkiekin batera, gure argazkilariek ere egun osoan kamararekin bate-tik bestera ibiliko dira, ondoren egunari buruzko argazki bilduma osatzeko. Argazki horiek bihar bertan Facebook-eko gure orrian ikusgai ipiniko ditugu, zuek ere #SagardoEgunak lagatzen dizkigun irudiekin gozatzeko aukera izan dezazuen.

Beraz, animatu zaitezte bihar Untzagara gerturatu eta sagardo ederra dastatzera. Eta, zergatik ez, lagundu eguneko kronika idazten eta zuen argazkiekin osatzen, saria jaso dezakezue eta!



Urbatek antolatuta, Flysch Beltza itsas zeharkaldi arrakastatsua

Aurreko zapatuan jokatu zen Urbatek antolatutako Flysch Beltzaren lehenengo edizioa, bi probetan banatuta: 16.30etan abiatu zen Saturrarantek Debarainoko sei kilometrokoa eta ordubete geroago igerilariak Mutrikutik Debaraino eramango zuena, hiru kilometrokoa (azken horretan batzuk neoprenoa erabili zuten eta beste batzuk ez). Proba nagusian, luzeenean, Urbateko lau igerilarik hartu zuten parte eta Aitzol Arrillaga nabarmendu zen, 4. postuarekin. Ander Romarate 21.a izan zen



Debako hondartzan, Nekane Tejedor 35. postuan iritsi zen eta Ander Santos 38.

izan zen. Guztira 132 igerilarik hartu zuten parte proba nagusi horretan.

Sporting Novak lider bakarra foball zaletuan

Iruki Sagardotegiari 6-1 irabazita, Sporting-ek bi puntuko aldea ateratzen dio berarekin berdinduta zegoen Txokori, azken honek bina berdindu zuelako Es-morgarekin, puntu bakarra eskuratuz. Azken postuei begira, Caseriok eta Aretok punturik lortu gabe jarraitzen dute 3. jardunaldia jokatu.

Laugarren jardunaldian liderrak oraindik golik jaso ez duen talde bakarra izango du aurkari: Fontaneria Mujika. Gol bakarra sartuta, bost puntu dituzte F. Mujikakoe. Txoko-Durango eta Koskor-Alkideba neurketek ere garrantzia izango dute goi postuetarako.

Eibar-Levante, bihar 20.00etan

Gaizka Garitanok zuzentzen duen taldeak garrantzi handiko neurketa izango du bihar sailkapeneko azkenaurreko postuan dagoen Levanteren aurka. Mendilibar da Valentziako taldearen entrenatzailea eta

han jokatzen du iaz Eibarrekin jardun zuen Morales aurrelariak ere. Bestalde, Ipar Tribunako abonatuak aukera dute hilaren 9ra arte mekanotuboko harmailetan euren toki berriak hartzeko.



Manu Agirre U-chan eta Fernando Blas karatekekin.

Kalamuakoak motorrak berotzen Ondarroan

Zapatuan urtero Ondarruko Pauko judokekin egiten duten elkartrukea errepikatu zuten Kalamuako judokak, goiz eta arratsaldeko saioetan. 30 kirolari batu ziren datorren asteburuan hasiko diren Espainiako Kopetarako (Nekane Muguruzak Irunen egingo den lehenengoan hartuko du parte) entrenamendu gisa hartzen duten ekitaldian. Domekan, bestalde, defentsa pertsonalerako beste kurtso bat egin zuten.

49.140 SAGARDO BOTILA 21 URTETAN, 833 BAZKIDE

...eta kitto!
ko
bazkide izan nahi dut

...eta kitto! Euskara Elkartea
Urkizu 11, solairuaretea. EIBAR. Tel.: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.com

urteko kuota

- 16 urtetik behera
5 euro
- Lanean dihardut
45 euro
- Langabea, ikaslea,
jubilatua, etxeoandrea
15 euro
- Borondatez, diru
gehiago eman nahi dut
..... **euro**

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____ Herria: _____
Telefona: _____ e-maila: _____
Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____
Kontu zenbakia (20 digito): _____

Beste 20 egun Ipuruako lanei buruz erabakitzeko

Eibarko Udalak urriko plenorako laga du Ipuruako lanei buruzko azken erabakia, "joan zen asteko eguenean bi bizilagunek egindako eskaera onartuta", Miguel de los Toyos alkatearen esanetan. Martitzenean emandako prentsurrekoan, alkateak euren jarriera justifikatu zuen, "garbi jokatu eta legalitate printzipioari jarraituko ziotela" adieraziz. Foball zelaia Udalarena denez, maiztean jo zuten Eibar Foball Taldeko zuzendaritzakoek eurengana epe erdirako zuten asmoak agertzeko. Gaur egungo mugak gainditzen direla-eta, udal teknikariek Plan Berezia landu zuten, uztailean kaleratu eta alegazio-epeak abuztuan amaitzeko. Oporrak tarteko, beste hamar egun luzatu zen epe hori eta irailean udal

teknikariek Ipuruako auzotarren alegazioei ezezkoa emanaz erantzun zieten, puntu bakarra onartuz: handitzea ez zegoela nahiko justifikatuta zioena. Aurreko asteko astelehenean bidali zuen Eibar FT-k justifikazio hori eta Plan Berezia gehitzen zaio, iraileko plenora eramateko asmoz. Tartean Ipuruako auzotarrek puntu hori berria dela-eta egindako eskaerari erantzunez, Udalak Gipuzkoako Boletinean argitaratzea eta auzoko kaltetuei 20 eguneko tartea ematea erabakitzen du, alegazioak egiteko aukera emanaz. Udalak orain arte "egokiagoa ikusten du Eibar FT-ren postura, baina ulertzen du desadostasuna. Ni neu lautan bildu naiz kaltetuek sentitzen diren auzotarrekin", zioen De los Toyosek.




Ipuruako batzordea aurka

Ipuruako auzotarren batzordeak, aforoa handitzearen aurka ez badago ere, ez du zuzen ikusten Eibar KE-k Ipar Tribunan egin nahi duena eta badaudela beste aukera batzuk dio. Hasieratik eurekin barbarik ez egitea aurpegiatu diote Eibar KE-ren zuzendaritzari eta azken hauen asmoek euren bizitza-kalitateari erasotzen diotela uste dute: kalea tunel-aparkalekua bihurtuko da, argia asko gutxituko da eta "400 bat lagunendako aisialdi-gunea den plazaletan" pikutara joango da. Aldi berean diote grada berri hori urtean 40 ordutan erabiliko dela bakarrik (bi ordu hamabostero, hamar hilabetetan) eta ez dela beharrezkoa.

Ipar Tribuna: aukera egokiena

Klubaren agintariek, hainbat alternatiba aztertu ondoren, lanak Iparaldeko Tribunan egitea erabaki dute. Handitzea Mendebaldeko Tribunan eginez gero, hau da anexoaren aldean, "tribuna osoari eragingo zion eta grada osagarriak jarri beharko ziren I. Ojanguren kalean, harrobiko taldeei egingo zitzaizkien kalteekin batera"; Ekialdeko Tribunan edo Eskozia-la Bravakoan ere "guztia bota beharko litzateke eta horko kalteak bi kaletara zabalduko lirateke, Ipuruara eta I. Ojangurenara: bi obra baten lekuan"; Hegoaldeko Tribunan edo Tribuna Nagusian "ez du merzei ezer egitea, berriena delako (orain dela 15 urtekoa) eta, gainera, bulegoak bertan daudelako (orain dela 10 urte berriztuta)". Hori dela-eta, Eibarko arduradunek Iparaldeko Tribunan graderia berria egitea ikusten dute mesedegarriena eta kalte gutxien eragingo lukeena. Diotenez, 1.200 eserlekuko aforoa lortuko zen eta bisibilitatea Ekialde eta Mendebaldekoena baino hobea izango litzateke, "bide batez zelaia simetrikoago bihurtuta". Grada horrek 3 metro eta erdiko altuera hartuko luke "eta beste hiru airean. Kaleak gaur dituen aparkalekuekin jarraituko luke".

Aurreko astean merkatariei eta tabernarien ordezkariak Ipuruan izan ziren jarrera adostuaren alde eginez.



GAUR EGUNGO AFOROA

Iparaldeko Tribuna: 720
Hegoaldeko Tribuna: 2.092
Ekialdeko Tribuna: 1.005
Mendebaldeko Tribuna: 1.272
GUZTIRA: 5.089

Eibarrek bi urte ditu Foball Profesionaleko Ligaren Arautegiak dioena (1. mailan 15.000 ikusle) betetzeko. 2. A mailarako 6.000 eskatzen ditu Arautegiak. Klubak azken hau bete nahi du 1. fasean, "zaletuei modu egokian erantzuteko": 4.061 bazkide-abonatu eta beste 600 itxaron zerrendan.

Haritza, Eibar Eskubaloiairen bigarren senior taldea

Eibar Eskubaloiko arduradunek hitzarmena egin dute azken denboraldiotan Gipuzkoako Lurraldeko lehen mailan jokatu izan duen Eibarko Haritzarekin. Horrela, klubak bi senior talde izango ditu hemendik aurrera, eta bigarrenen jubeniletatik datozen mutilak esperientzia irabazten joango dira. Eibar Eskubaloitik datozen jokalariek gazteekin batera, Haritzako lauzpabost jokalariek esperientziadunak eta bizpahiru denboralditan jokatu gabeko hiruro bat lagun izango ditu; hau da, gaztetasuna eta esperientzia batera. Aurrendenboraldian

jokatutako bi partidak ondo irabazi ditu asteburuan bere liga hasiko duen taldeak.

Somos Eibar talde nagusiak, bestalde, Egia-ri irabazi zion 30-37 guztiz desberdinak izan ziren bi zati jokatu ondoren. Atsedenealdian markagailuak 18-14koa erakusten zuen donostiarren alde eta bigarren zatiko eibartarren aldeko 12-23ko partzialak partidua irauli zuten. Bihar Ipuruan izango dute hurrengo hitzordua Somos Eibar Eskubaloikoek, 18.30etatik aurrera Usurbil igo berriaren aurkako partiduan.



Igor Moyua, Somos-eko atezaina.

Bi derbi jokatu ziren I. Erregional mailan

Gure herriko lau taldek jokatzen dute Gipuzkoako I. Erregional mailako zazpigarren multzoan eta euren arteko derbiak jokatu ziren Unben asteburuan. Eibartarrak-ek 3-2 irabazi zion Urkiri eta aurten sortutako Urkomendi 14-k 2-0 iaz bere ibilbidea hasi zuen Armagiñak taldeari. Aurreko asteburuan Arma-



giñak 2-1 nagusitu zitzaion Urkiri. Gazteak desagertu zenetik, Urki eta Eibartarrak izan dira gure herriko taldeak erregionalean (Eibartarrak-ek, gainera, Preferentean ere jokatu izan du). Bergara, Arizmendi eta Sorraluze dituzte lagun zazpi taldez osatutako multzo horretan; beraz, ez dira gutxi izango jokatu beharreko derbiak.



Deporreko mendizaleak Torrecillan izan dira

Zapatuko ibilaldia Clavijo eta Torrecillaren artekoa izan zen, Errioxa eta Soriako mugako lurretan; eta bidean Cerroyera gaina, 1.400 metrotik gorakoa, hartu zuten. 28 lagun batu ziren beste hainbeste kilometroko txangoa egiteko. Eguraldi bikaina lagun zutela, inguru politekin gozatzeko aukera izan zuten Deporrekoek.



esan izan gozan
nafarroa oinez 14

autobusa
Ego-Gainetik

Irteera: 08.30etan		Buelta: 18.30etan
-----------------------	---	----------------------

15 euro

Nafarroa Oinez ZANGOZAN
urriaren 19an

J.A. MOGEL-EKO GURASOEN ELKARTEA ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA



Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena




www.eitek.net

Bertso-paper lehiaketa astelehenean abiatuko da

San Andres jaien inguruan ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen bertso-paper lehiaketara lanak entregatzeko epea urriaren 6an, astelehenean, zabalduko da. XX. edizioak ere maila bi izango ditu: 16 urtera artekoek (Eibarko ikasleak) bertso 1 edo 2 kopla aurkeztu beharko dituzte, eta 16 urtetik gorakoek, berriz, (Euskal Herria mailan) 4 puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez (10 gehienez). Gaia librea izango da eta ber-

tsuak jatorrizkoak. Doinua librea eta idatziz adieraziko da. Lanaren 3 kopia (gaitziznarekin sinatuta; beste orri batean, eta gutunazal itxian, gaitzizena identifikatzeko datuak: izen-abizenak, telefonoa eta adina) postaz bidaliko dira (edo eskura eman) ...eta kitto! Euskara Elkartera (Urkizu 11, solairuartea). Lanak entregatzeko epea azaroaren 10ean amaituko da, eta irabazleek, azaroaren 23an, domeka, egingo den bertso-



lazko edizioko txapeldunetako bat berak egindako bertsoa kantatzen. LEIRE ITURBE

jaialdian jasoko dituzte sariak. Gazteenen artean liburu eta txapela irabazleak, eta liburu eta plaka bigarrenak.

16 urtetik gorakoen artean, berriz, 300 euro eta txapela irabazleak eta 250 euro eta plaka bigarrenak.

Bidelapurak eta bertsoak Belekon

Asteburu honetarako ekitaldi bi antolatu dituzte Beleko tabernan: gaur 23.30etatik aurrera Bidelapurak zuzenean entzuteko aukera izango da. Antolatzailerak azaldukoari jarraituta, "bi bandolero hauek 2013ko irailean elkar-tu ziren Albertiako basoetan eta, hilabete batzuk itzaletan eman eta gero, instrumentuak kargatzeko irrikitan ailegatuko dira gurera". Biko formatuak eskaintzen dituen erraztasunak aprobetxatuta, Uberak eta Sorozabalek osatutako bikoteak kantak sortu



Bidelapurak, Uberak eta Sorozabalek osatutako bikoteak, zuzenekoa emango du gaur gauean, 23.30etatik aurrera

eta fintzeari ekin zion eta, luzaroan abandonatuta izandako banjoa berreskuratuta, AEBtako doinu tradizional-tan oinarritutako abestiak eskaintzeko prest irtengo dira eszenatokira.

Eta bihar, 20.30etatik aurrera bertso saioa hartuko du Belekok, hiru bertsolari gazteren eskutik: Nerea Ibarzabal (Markina), Agin Laburu (Astigarraga) eta Jokin Bergara (Eibar) bertsolariek tabernan batutakoak asetzeko moduko saioa eskaintzen ahaleginduko dira, baietz lortu?

Sagardo Egunerako girotzen: erakusketa eta dastaketa

Bihar Untzagan egingo den Sagardo Egunaren harira, girotzen joateko jarduera bi antolatu ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Eguazten arratsaldean Iruki sagardotegian sagardo-dastaketa egin zuten parte hartzeko izena eman zuten 20 bat lagunek. Zapiain sa-



20 bat lagun batu ziren Irukin eguazteneko saioan. JULIAN FERNANDEZ

gardotegitik etorritako Egoitz Zapiain kalitate arduradunak eta Miguel Zapiainek gidatutako saioan Astigarragatik ekarri zituzten sagardo ezberdinak dastatzeko aukera izan zen, horien ezaugarriak eta bestelako berezitasunak azaltzen zituzten bitartean. Bertan parte hartu zutenentzat biharko egunari begira egindako "entrenamendu" ezinhobea.

Horrez gain, aurtan Eibarko Sagardo Egunari buruzko erakusketa prestatu dute. Aurreko zapatuaz geroztik, Untzagako jubilatutako erakusketa aretoan Sagardo Egunaren edizio ezberdinetan egindako argazkiak ikusteko aukera dago. Argazkiekin batera, sagardoa egiteko prozesua azaltzen dituzten irudiak eta sagardoa egiteko erabiltzen dituzten sagar mota ezberdinak ikus daitezke. Erakusketa oraindik ikusi ez duenak argi ibili beharko du, gaur azken eguna izango da eta. Eguneroko ordutegiari jarraituta, 19.15etatik 21.15etara zabalduko dituzte erakusketako ateak.

El Ultimo Tributo zuzenean

El Ultimo de la Fila talde mitikoa jaio zela 30. urte bete dira eta, horren aitzakiarekin, taldearen jarraitzaileek berriz ere euren musikarekin gozatzeko aukera aparta izango dute gaur gauean, 22.30etan hasiko den kontzertuan. Gaurkoan, baina, 80. eta 90. hamar-



kadetan horren ezagunak egin ziren abestiak El Ultimo Tributoren eskutik ailegatuko zaizkio publikoari. Quimi Porteten laguntzarekin, Manolo Garcia buru zuen El Ultimo de la Fila taldea punta-puntako erreferentzia bilakatu zen Espainiako musika munduan eta taldeari zein haren jarraitzaileei omenaldi modukoa egiteko, El Ultimo Tributo izeneko taldea sortu zuten 2007an. Bere ibilbideari ekin ziotenetik gaur arte arrakasta ugari bildu ditu talde honek eta, besteak beste, 2012. urtean musikaren ARC sarietarako izendapena jaso zuten, bertsiotaldean artean birarik onena egin zutela-eta. Kontzerturako sarrerak 15 euro balio du eta aldez aurretik zein leihatilan bertan erosteko aukera izango da.

Umeendako ikuskizuna Coliseoan

Bihar arratsaldean, 17.00etatik aurrera "Wangari neska arbola" umeendako ikuskizuna eskainiko du Karlik Danza Teatro taldeak Coliseoan (6 euro). Ikuskizunak ia ordu bete iraungo du eta, dantza eta antzerkia uztartuta, Afrikaraino bidaiatzeko aukera emango die ikusleei: "Bazozain batek sute baten harira erabat kiskalita gelditu den paisaiaren aurrean jasotako porrota onartzeari uko egiten dio. Behin Wangari Maathai izeneko Emakume Arbolarik kontatzen entzun zion elezaharra gogoratzen du; kolibri umilaren alegia, basoko garren laztasunaren gaineratik bere mokoarekin ur tanta eramaten jarraitzen duen txori txikiaren istorioa. Izan ere, bere txikitasunean txoriak sua amatatzeko bere esku dagoen guztia egiten duela kontatzen duen istoriotik abiatuta, Nyerira gerturatzen joango dira, Afrikaren bihotzean dagoen Kikiyu izeneko herrira ailegatu arte. Kenia mendiaren begirada sakratuaren babesean



dagoen herri horretan Wangari Maathai umeak bere lehen pausak ematen ditu, Lurraren edertasunaz ohartzen da eta bizitzaren zein heriotzaren zikloak antzemango ditu. Bere amarengandik hazien eta uzten boterea ezagutuko du eta bere amonarengandik landatutakoa hazten ikusteko behar den pazientzia edukitzen. Baina gainera diruak eta interesak Lurra zauritzen dutela ere ohartuko da...".

Cristina D. Silveirak zuzendutako lan honetan dramaturgiaren arduraduna Itziar Pascual da eta antzezleak, berriz, Elena Sanchez, Cristina Perez, Elena Lucas eta Amelia David dira.

laburrak

KULTUKOAK TOPALEKUAN

Arrate Kultur Elkarteko hainbat bazkideren lanekin osatutako erakusketa domekara arte, urriaren 5era arte egongo da ikusgai Topalekuan, gaur 19.30etatik 21.00etara eta bihar eta etzi, berriz, 12.00etatik 14.00etara. Erakusketan parte hartzerantz animatu diren bazkideak Charo Baglietto, Esther Fernandez de Maruri, Espe Zabala, Esteban Oroz, Fernando Retolaza, Jose Luis Irigoien, Bakarne Elejalde, Eli Eguren, Arrate Osoro, Maite Arriaga, Jesus Belaustegi eta Esther Galarza dira.

SOSTOA JENDE BILA

Sostoa abesbatzak eurekin batera kantatzeko prest dauden 30 eta 55 urte bitarteko gizon eta emakumeak erakarri nahi ditu, abesbatzarekin bat egitera animatzeko asmoz. Taldean sartzeko ez da aparteko baldintzarik bete behar, nahikoa da abestea gustoko izatea eta entsaioetara joateko prest egotea. Interesa duenak abesbatzarekin kontaktuan ipintzeko sostoaabesbatza@yahoo.es helbidera idatzi dezake edo, bestela, 650929200 / 680106748 zenbakietara deitu.



Gaur 23.00etatik aurrera Malcolm Scarpa Madrilgo musikari beteranoak kontzertua emango du Ez Dok tabernan (sarrera doan). Musika munduan ibilbide luze eta oparoa duen musikariak, gitarrarekin lagunduta abesteaz gain, kanta idazten ditu. Estatu mailako blues eta pop giroetan aski ezaguna den musikariak, besteak beste Django Reinhardt, Kinks, Split Enz, Elvis Presley, Brian Wilson eta Ron Mael bezalako eragina jaso du.

○ Washingtonen euskara irakasle bila

Ikasturtea hasteko sasoi honetan, munduan zeharreko Euskal Etxe gehienak prest dira eskolak emateko. Hala ere Ipar Ameriketako Euskal Elkarteak adierazi duenez, Seattle-en Euskal Etxea eta euskara ikasi nahi dutenak badituzte, baina irakaslerik ez dituzte aurkitzen. Aldiz, Amerikako Estatu Batuetan eta Kanadan jardungo duten hamalau irakasle baieztatu ditu: bi arituko dira San Francisco, Denverren beste bi, Homedale-en (Idaho) bat, Mountain Home-n (Idaho) beste bat eta Idahoko Boise-n lau; Bostonen irakasle bat izango dute eta Montrealen hiru. 2014-15 ikasturtean 150 ikasle inguru arituko dira euskara ikasten.

○ Euskarazko hezkuntza jomuga

“Erealtate instituzionala” ahotan duela, euskarazko 22 eskola liburu erretiratzeko agindu du UPN-ren gobernuak. Liburu guztiak euskara ikasgaikoak dira eta Jose Iribas Nafarroako Hezkuntza kontseilariak eskolak ikertzen jarraitzeko asmoa dutela esan du. Ez da oraingoa Euskal Herria agertzen duten liburuen aurkako jokabidea, baina azken urtean bereziki gogor ari da Nafarroako gobernuak euskarazko hezkuntzaren aurka. Guardia Zibilaren txostena iritsi zen lehenik, esanez 0 erudian lau irakasletik bat “etazalea” zela; eta joan den ikasturtean eskolak jarri zituen jomugan, 28 ikastetxek legea ez zutela betetzen-eta.



Kike Amonarrizen hitzaldia

Datorren urriaren 14an, martitzena, Kike Amonarriz-ek “XXI. mendeko euskaldunak: Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!” izeneko hitzaldia eskainiko du, ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan, arratsaldeko 19.00etan. Hitzaldian, iraganean euskerak izandako arazoak, egungo hizkera, gazteen artean euskerak duen egoera, hizkera berriak eta hizkuntzaren kalitatea eta aurrera begirako beharrei buruz jardungo du Kikek. Euskeraren gaur egungo egoeraren eta etorkizuneari izan dezakeen aldaketaren inguruan ere egingo du berba, eta bide batez, euskerak belaunaldi berrietan izango duen joera nolakoa izan daitekeen ere azalduko du.

euskararen txokoa

Ustekabek ikastolen jaia alaituko du

Ustekabe fanfarreko gazteak domekan Orion egingo den Kilometroak Gipuzkoako ikastolen aldeko jaiaren parte hartzen izango dira. Antolatzailleek egindako proposamenari baietza eman diote eibartarrek eta, ikastolei euren laguntza emateko asmoz, musutruk jardungo dutela azaldu dute. Ustekabekoek zati bitan banatutako emanaldia eskaintzeko asmoa dutela aurreratu dute: lehen zatia eguerdian izango da eta bigarrenari, berriz, bazkalostean ekingo diote. Aurreikusitakoari jarraituta, Kilometroak-eko ibilbideko hainbat



gunetan kalejiran ibiliko dira, musikarekin giroa alaitzeko. Ekimenarekin bat eginda, Ustekabek beste batzuetan ere erakutsi duen euskarerikiko duen konpromisoa berretsi nahi duela argitu dute fanfarreko kideek.


Autobusak Ego Gaietik

Bestalde, azken orduko aldaketaren ondorioz, J.A.

Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarteak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak Kilometroak-era joateko antolatutako autobusak Ego Gaietik irtengo dira (eta ez Toribio Etxebarria kaletik, hasieran horrela izango zela aditzera eman bazen ere). Autobusak Eibartik 09.30etan irtengo dira eta Oriotik buelta, berriz, 19.30etan izango da.

Argazki erakusketa berriak urrirako

Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek urrirako argazki erakusketak ipini dituzte ikusgai ohiko tabernetan: hiltaren 31era arte Portalea tabernan Txus Leal Tejadaren erretratuak ikusteko aukera egongo da; Ambigu tabernan, berriz, Oscar Blancoren argazki bilduma dago; eta Depor tabernan, kirolari eta atletismoari eskainitako argazkiak ipini dituzte ikusgai.




laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MIKEL Treviño, martitzenian hiru urte bete zenduaz-eta. Familixa guztiaren partez.



Zorionak, KOIKILLI, astelehenian urtia bete zenduan-eta. Etxekuen eta, batez be, Enara, Ekhi, Eñaut eta Pelloren partez.



Zorionak, DANEL, gaur zazpi urte egitten dozuz-eta. Familixaren eta, batez be, Miren eta Paula zure arreben partez.



Zorionak, MARKO Morquecho Hernandez, astelehenian lau urte beteko dozuz-eta. Aroa eta etxeko danon partez



Ongi etorri, PELLO, irailaren 30etik gure artian zagoz-eta. Ze pozik gagozen zure lehengusuak osatuko dogun kuadrilliarekin.



Zorionak, MADDI, aurreko astelehenian bi urtetxo egin zenduan-eta. Patxo mordua familixaren partez!



Zorionak, ANER, bixar hiru urte egingo dozuz-eta. Familixaren eta, batez be, Danel anaixa eta Noa lehengusiñaren partez.



Zorionak, EKAIN, martitzenian lau urte egingo dozuz-eta. Muxu bat famelix guztiaren partez.



Zorionak, ANE, martitzenian sei urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JONE, bixar 11 urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat familixaren partez.



Zorionak, LEIRE, martitzenian 17 urte egingo dozuz-eta. Familixaren partez.



Ongi etorri, JULE!! Zure famelixia eta, batez be, zure anaixa ANDER poz-pozik gagoz gurekin zaudelako. Millioi bat muxu!!!



Zorionak, IBONE eta ANDER, domekan 10 urte egingo dozuez-eta. Muxu haundi bat aitatxo eta amatxoren partez.

zineaColiseoan

(ANTZOKIAN)

4an: 19.45, 22.30

5ean: 20.00

6an: 20.30

"Un viaje de diez metros"

Zuzendaria: Lasse Hallström



(ANTZOKIAN)

5ean: 17.00

"Guardianes de la galaxia"

Zuzendaria: James Gunn



hildakoak

- Dolores Sanchez Zubeldia. 67 urte. 2014-VIII-3.
- Jose M^a Patiño Castillo. 48 urte. 2014-IX-13.
- Lucas Gamino Fernandez. 60 urte. 2014-IX-25.
- Juan Arizmendiarieta Larrañaga. 85 urte. 2014-IX-29.
- Carlos Lopes Augusta. 75 urte. 2014-IX-29.

jaiotakoak

- Eki Eraso Izpizua. 2014-IX-21.
- Luke Litago Lasuen. 2014-IX-22.
- Jokin Etxezarraga Soto. 2014-IX-23.
- Markel Etxezarraga Soto. 2014-IX-23.
- Jule Azurmendi Marquez. 2014-IX-24.
- Elene Treviño Olabarria. 2014-IX-27.
- Pello Vega Fernandez. 2014-IX-30.

BARIXAKUA 3

INDIANOKUA

16.30. Kanpo-jolasak. Txaltxa Zelaian.

KONTZERTUA

22.30. El Ultimo Tributo. 15 euro. Coliseoan.

KONTZERTUA

23.00. Malcolm Scarpa. Ez Dok tabernan.

KONTZERTUA

23.30. Bidelapurrak. Beleko tabernan.

ZAPATUA 4

AZOKA EKOLOGIKOA

10.00/14.00. Debabarreneko III. Azoka Ekologikoa.

11.00etatik aurrera. "Merienda osasuntsua" tailerra, Aza ta Porru elkartearen eskutik.

15.00. Azokako parte-hartzaileen bazkaria.

18.00/19.30. Bertako baserrietan ekoizitutako produktu ekologikoen dastaketa. Urkizun.

SAGARDO EGUNA

12.00/14.30 eta 19.00etatik aurrera.

Egun osoko jaia. Gorenak elkarteko 13 sagardotegietako sagardoa dastatzeko aukera, pintxoak... Untzagan.

UMEENDAKO IKUSKIZUNA

17.00. "Wangari neska arbola" (Karlik Danza Teatro). 6 euro. Coliseoan.

INDIANOKUA

17.00. Eskulanak: boloak. Indianokua gaztelekuan.

SANMIGUELAK

17.00. Briska txapelketa.

17.30. Umeendako jolasak eta txokolate jana.

21.00. Lagunarteko afaria. Ondoren, bertso saioa Larrañaga eta Narbaizarekin.

23.00. Erromeria, Kupela taldearekin. Goizaldera, txokolate jana. Aginagan.

UMEENDAKO ZINEA

17.30. "Alicia en el pais de las maravillas" (Johnny Depp). El Corte Inglesean.

BERTSO SAIOA

20.30. Bertso saioa: Nerea Ibarzabal, Jokin Bergara eta Agin Laburu. Beleko tabernan.

KONTZERTUA

22.00. Garrapata, Ekinocio eta Skapital City taldeen kontzertua. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

DOMEKA 5

KILOMETROAK

09.30. Oriora, Kilometroak jaira joateko autobusaren irteera. Ego Gainetk (buelta 19.30etan).

SANMIGUELAK

11.00. Meza nagusia.

12.30. Gorritiren abereak.

14.30. Paella-jana, Gardokik alaituta. Aginagan.

INDIANOKUA

17.00. Eskulanak: boloak. Play / Wii. Indianokua gaztelekuan.

MARTITZENA 7

HARIXA EMOTEN

19.00. Idazlearekin Harixa Emoten. Ana Jakaren "Ez zen diruagartik" liburua. Juan San Martin liburutegian.

EGUAZTENA 8

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

HITZALDIA

19.30. "Ikusmena bizitza da", Mercedes Zabaleta oftalmologoaren eskutik. Policlínica Gipuzkoak antolatuta. Portalean.

EGUENA 9

KALERATZEAK STOP

19.00. Kaleratzeak Stop Debabarrenaren batzar irekia. Portalean (3. solairuan).

HITZALDIA

19.30. "Abenturatik triatloira", Dina Bilbaori buruz, Josu Iztuetaren eskutik. Eibar Triatloi Taldeak antolatuta. Klub Deportiboan.

diru-laguntzak

✓ Diru-laguntzak ikasleei / Umeak Eskolara

Zenbatekoa: 60'10 euro. **Eskaerak aurkeztea:** Eibar Merkataritza Gune Irekian (Untzaga Plaza, 7- 3. behe), urriaren 31ra arte. **Informazio gehiago:** Pegoran.

Ikastaroak

✓ UEUko ikastaroak

Eskaerak eta informazioa: www.eibar.net helbidean eta Pegoran.

HOROSKOPOA

ARIES

Sufritzen ari zara. Ezin baduzu barkatu egin dizutena, ahaztu eta hobe duzu bearekin berriz ere zerotik hastea.

TAURUS

Nora zoaz udako erropekin? Gorde praktika motzak eta sandaliak, eta atera txamarak. Barregarri izan aurretik!

GEMINI

Pozik egotea ondo dago, baina burua txoriz bete zaizu. Hankak lurrean ipini eta zentratzen hasi beharko duzu.

CANCER

Lagun ona zara, beti laguntzeko prest dauden horietakoa. Orain laguntza zuk behar duzunez, lagunak ere hor dituzu.

LEO

Éz duzu espero zenuena lortu, ezta? Daukazuna baloratu egin behar duzu eta zure eskakizun maila jaisten hasi.

VIRGO

Zenbat purrustada! Nahikoa da. Horrela jarraituz gero, ez da inor egongo zuri entzuteko: nazkatuta dauzkau lagunak.

LIBRA

Kirola egitea ondo dago; neurrian hobe! Udan irabazitako kilo pare hori berehala kenduko duzu eta baztertu presa horiek.

SCORPIUS

Asteburu bikaina pasatuko duzu, astroak zure alde dituzu-eta. Aspaldian ez bezala ligatu eta une magikoak biziko dituzu.

SAGITTARIUS

Buruan duzun bidaia hori egiteko unea heldu da. Hobe duzu lagun batekin joatea, bakardadea ezin duzu jasan-eta.

CAPRICORNIUS


Oztupo guztiak gainditzeko gauza zara eta gaurko egoera ere konpontzeko. Baina laguntza eskatzea ez da bekatu.

AQUARIUS

Sekretuak ondo gordetzen dakizu eta lagunaren konfidentea zara, baina azken kontu hori larregizkoa da isiltzeko.

PISCIS

Gabonetako oporretan pentsatzen? Orain hasi da ikasturtea, barren! Animo: uste baino azkarrago helduko dira.



erakusketak

- ✓ **Urriaren 3ra arte**
SAGARDO EGUNAREN inguruko erakusketa.
Untzagako Jubilatut Etxean
- ✓ **Urriaren 5era arte**
ARRATE KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN
artelaren erakusketa. *Topalekuan*
- ✓ **Urriaren 12ra arte**
CERAMIC SUITE erakusketa. *Portalean*
- ✓ **Irailaren 31ra arte**
"KIROLA/ATLETISMOA" argazki erakusketa.
Klub Deportiboan
TXUS LEAL-EN argazki erakusketa.
Portalea tabernan.
OSCAR BLANCOREN argazki erakusketa.
El Ambigu tabernan

farmaziak

- ✓ **barixakua 3**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **zapateria 4**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **domeka 5**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **astelehena 6**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **martitzena 7**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **eguztana 8**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **eguna 9**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **barixakua 10**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI
Azkue (T. Etxebarria, 4)

lehiaketak

- ✓ **San Andres bertso-paper lehiaketa**
Lanak aurkeztea: **azaroaren 10era arte**. Informazioa: ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuarean), 943200918 telefonoan.
- ✓ **XV. Asier Errasti Film Laburren Jaialdia**
Lanak aurkeztea: Portalean, **urriaren 3ra arte**. Informazioa: www.planocorto.es / www.eibar.net; cultura@eibar.net; 943708435 telefonoan.
- ✓ **XXVII. I. Ojanguen Argazki Lehiaketa**
Lanak aurkeztea: Portalean, **urriaren 3ra arte**. Informazioa: Portalean.
- ✓ **Sanandresak Eibarren Kartel Lehiaketa**
Lanak aurkeztea eta informazioa: **Urriaren 14ra arte**, Pegoran.

telefono jakingarriak

SOS deiak 112
Pegora 010
Udaletxea 943 70 84 00
Portalea 943 70 84 39
Udaltzaingoa 943 20 15 25
Mankomunitatea 943 70 07 99
Debegesa 943 82 01 10
KIUB 943 20 38 43
Epaitegia 943 03 34 00
Iberdrola 901 20 20 20
Naturgas 902 12 34 56
DYA Larrialdiak .. 943 46 46 22
Gurutze Gorria ... 943 22 22 22
Mendaro osp. 943 03 28 00
Anbulategia 943 03 25 00
Torrekua 943 03 26 50
Errepideak 902 11 20 88
Ertzaintza 943 53 17 00
Eusko Tren 902 54 32 10
Pesa 902 10 12 10
Taxiak 943 20 30 71
 943 20 13 25
Alkohol. Anon. 629 14 18 74
Al-Anon/Alateen .. 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.
EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45.
GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.
EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.
EIBAR-MENDARRO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARRO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.
EIBAR-LOIU. Egutegia: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egutegia: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13.
DONOSTIA-EIBAR. Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
EIBAR-BILBO. Egutegia: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

	1	6				2
6	8	9	3			
4	8	1				
3	6					
8	9	5		1	3	2
					4	9
			6	5		1
		4	3		7	9
5				9	3	

SUDOKUA

4	2	6	7	3	5	9	8	1
3	5	8	9	4	1	2	6	7
7	1	9	8	6	2	3	4	5
9	4	5	2	1	8	6	7	3
2	6	3	5	7	4	1	9	8
8	7	1	6	9	3	4	5	2
5	8	4	3	2	9	7	1	6
1	3	7	4	5	6	8	2	9
6	9	2	1	8	7	5	3	4

AURREKOEN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun eta trasteroa (130 m² erabilgarri edo 156 eraikiak). Ilogailua. Argitsua. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Tel. 626-203838 edo 699-495249.
- Pisua salgai beheko solairuan J.A. Mogel kalean. 3 logela, egongela, sukalde eta komun. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 619-619254. Cristina.
- 7 urteko etxebizitza salgai Mendaron. 3. solairua (118 m²) eta bi garaje bat eginik (43 m²). 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun, hall-a eta terraza (20 m²). Trastelekua aukeran (27 m²). Komunitateko lorategia eta haurrentzako jolas-gunea. Argitsua eta bistak. Tel. 616-668742.

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Ipuruan. 2 logela, sukalde-egongela eta komun. Lagun batendako edo bikote batendako egokia. Egoera onean. Tel. 696-045050.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. 2 logela eta egongelarekin. Tel. 602-490595.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 400-450 euro inguru ordaintzeko prest. Tel. 632-569245. Waris.
- Gizonezkoak pisua hartuko luke alokairuan. Konpartitzeko. Tel. 660-833346. Fernando.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean. Tel. 617-688311.
- Gazteentzako lokala alokagai. 70 m². Barra eta zerbitzuarekin. Erdialdean. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-908730.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 602-057896.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta baserrian edo eraikuntzan lan egiteko. Tel. 688-302653. Manuel.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-055905.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia nagusiak zaintzen, banatzaile moduan eta lorezain jarduean. Tel. 608-661323.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-498697.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak eta gidatzeko karneta. Tel. 631-343232.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 602-149777.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 632-823247.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 637-406227.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-171806.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 637-966749.
- Magisteritza ikasi duen neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 659-671428.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 681-065683.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Tel. 639-438641.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein lanetarako. Tel. 639-611454.
- Mutila eskaintzen da furgonetarekin banaketa lanak egiteko. Tel. 695-702318.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduzabala. Tel. 608-523426.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-525042.
- Mutila eskaintzen da umeak zaintzeko eguerditi aurrera. Tel. 664-464679.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 637-406227.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-376013.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 655-677035.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 943-425443.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-259560.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-180233.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 642-609678. Piedad.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 631-282203.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 662-252150.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 636-247429.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Berehala hasteko moduan. Erreferentziak. Tel. 648-054046.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Berehala hasteko moduan. Erreferentziak. Tel. 674-342769.
- Emakume euskalduna eskaintzen da lan egiteko. Tel. 606-502567.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-417995.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko: Geriatria ezagutza, Magisteritza, ... Berehala hasteko prest. Tel. 679-335510.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 633-641988.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 647-885099.

4.2. Langile bila

- Neska behar da Eibarko taberna batean sukalde-laguntzaile jarduteko eta harrakoa egiteko. Tel. 943-206868.
- Drogeteniturrir aldizkariak koordinatzaile behar du. Euskaraduna izatea, ondo idazten jakitea eta kazetaritza ikasketak izatea baloratuko da. Bidali curriculum-a urriaren 6a baino lehen: drogeten@gmail.com
- Elektrizista, iturgin edo antzeko ofiziotan esperientziaduna behar da. Bidali curriculum-a, argazkiarekin: ezenarar13@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Abesten ikasteko klaseak ematen dira Eibaren: pop, rock, jazz, folk... Musikalak eta kasting prestatzeko, zure ahotsa era zuzen batean erabiltzeko. Tel. 622-885340.

- Magisteritza duten bi neska eskaintzen dira HH, LH eta DBHko klase partikularrek emateko. Tel. 667-261248 (Leire) eta 620-694757 (Joana).
- Diplomatura mailako tituludun neska eskaintzen da klase partikularrek emateko. Tel. 662-283676.
- Ingeles Filologian lizentziatua eskaintzen da klase partikularrek emateko. Tel. 688-650752.
- 24 urtetan Ingalaterran bizi izandakoak bere burua eskaintzen du ingelesa praktikatzeko. Tel. 679-910991.
- Unibertsitate ikasketak egindakoek klase partikularrek ematen dituzte. Taldeka edo banaka. Beharpen bereziak. Tel. 687-033834. Nerea.
- LHko ikasketak amaituta dituen mutil euskalduna eta arduratsua eskaintzen da LHko umei klase partikularrek emateko. Tel. 634-430647.
- Neska eskaintzen da klase partikularrek emateko (arreta arazoak, ikasteko zailtasunak). Esperientzia. Ekonomikoa. Tel. 625-019711.
- Alemanierazko klase partikularrek ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle trukeketa eta EOI-rako azterketen prestaketa. Tel. 670-793312.
- Ingeles ingelesezko klase partikularrek ematen ditu. DBH, Batxilergoa, Heziketa Zikloak eta Unibertsitate. Talde murriztuak. Tel. 669-622642. Mireia.
- LH eta DBHko klaseak ematen dira. Ikasgai guztiak. Klaseak bakarka egiteko aukera. Tel. 652-757926.
- Ingelesezko klaseak ematen dira. Maila guztiak. Irakasle natiboa. Tel. 652-763264.
- Haur Hezkuntzan eta Atzerriko Hizkuntzan espezializatutako irakasleak klase partikularrek ematen ditu LHko umeentzat Isasin. Tel. 663-006640. Ane.
- Ingeles ingelesezko klaseak ematen ditu. Tituluduna klase partikularrek ematen ditu. Tel. 695-756447.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Umeendako arropa salgai (12-14 taila). Txamarra, sudadera eta prakak (Ternua eta Astore). Tel. 645-007388.
- Orbea Zeus Euskaltel bizikleta salgai. Aluminiozkoa, 2000. urtekoa, 54 M talkakoa, Shimano 105 Triple gurpilak. Rigido Xone Pro-line. 390 euro. Tel. 626-464422.
- O'90eko sukalde salgai, gas-bonbonak eramateko eta labearrekin. Baita O'90eko ohe artikulatua. Berriak. Tel. 617-688311.
- Umeendako karro-silla salgai. 90 euro. Tel. 632-569245. Waris.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Aurreko barixakuan, hilaren 26an, 18.00ak aldera, Nintendo 3 DS zuria galdu zen T. Etxebarria kalean. Bideo eta argazkiak, Mario Cars jokorekin. Tel. 617-374551.
- Barixakuan Portalean nire ordeagailua hartu zuten aretotik; barruan zegoen informazio oso garrantzitsua da nire lanerako. Mesedez eskatzen dugu edukia behintzat, memoria batean, Portalera bueltatzea edo erabilgarria izan daitekeen beste edozein informazio jakinaraztea. Nire helbidea: kirolak@eskoriatza.net
- Zilarrezko eskumuturreko aurkitu zen Arrateko txosnan. "Itsaso. 1998-III-25" du grabatuta. Tel. 655-987126.



CAMBRIDGE ENGLISH

Language Assessment

Authorised Centre

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

ABENDUKO DEIALDIA
AZTERKETAK Eibarren, Durangon eta Arrasaten

MATRIKULAK
Urriaren 1etik 17ra

AZTERKETA DATA

FCE IDATZIZKOA (1,2,3,4) **Abenduak 13 (larunbata)** ... AHOZKOA **Azaroak 21-Abenduak 15** artean
CAE IDATZIZKOA (1,2,3,4) **Abenduak 13 (larunbata)** ... AHOZKOA **Azaroak 21-Abenduak 14** artean
CPE IDATZIZKOA (1,2,3,4) **Abenduak 4 (osteguna)** AHOZKOA **Azaroak 14-Abenduak 7** artean

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83	DEBA:	Akabi	943 19 16 79
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53		North Street English	943 19 25 00
EIBAR:	Anglo-American	943 20 64 57	DURANGO:	San Jose Maristak	94 681 00 58
	Link Idiomak	943 20 39 59	MENDARO:	Akabi	943 75 50 55
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32	MARKINA:	Chatterbox	94 616 96 39
ELGOIBAR:	Kensington School of English	943 74 02 36	ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
	Key Academia de Inglés	943 74 30 44	BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
OÑATI:	Academia Sheila Fritz	943 78 20 91	ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
ONDARROA:	Howdy	96 683 23 79	MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58

Abokatuak • Aisialdia • Akademiak • Albaitariak • Alfonbrak • Altzariak • Argazkildendak • Argiztapena • Arkitektoak • Aroztegiak • Arraztegiak • Aseguruak • Asesorak • Autoak • Autoeskolak • Bankoak • Belardendak • Bidaiak Bideoak • Bideo klubak • Bitxitegiak • Bulego tresneria • Dekorazioa • Dentistak • Elektrizitatea • Elektrodomestikoak • Errehabilitazioa • Erreformak • Errotulazioa • Estankook • Estetika • Farmaziazkoak • Funerariak • Garagardotegiak • Garraloak • Gasolndegia • Haurzaindegiak • Euskaltegiak • Ikastetxeak • Hoteleak • Inprenta • Iturginak • Janaridendak • Jantzeriak • Jantzi-dendak • Kirolendak • Koltxoidendak • Komunikabideak • Leioak • Lentzeria • Liburudendak • Loradendak • Mendiak • Análisi klinikoak • Dermatologia • Dietetika • Otorrinolaringoiak • Oftalmologoak • Otorrinoak • Podologoak • Psikia- terriak • Optikak • Ortopedia • Pertsianak • Pinturak • Sindikatuak • Sofak • Sukaldeak • Tabernak • Tapizeriak • Tapizariak • Torlojugintza • Zeramika • Abokatuak • Aisialdi- zentroak • Argiztapena • Arkitektoak • Aroztegiak • Arraztegiak • Belardendak • Bidaiak Bideo erreportaiak • Bideo klubak • Bideozuzendaritza • Elektrizitatea • Elektrodomestikoak • Elkar- lagarritza • Estetika • Farmaziazkoak • Ferretariak • Fotogra- fia • Gasolndegia • Gozokiak • Gozotegiak • Gostaketak • Hotela • Igeltseroak • Ileapalndegiak • Jantzeriak • Jantzi-dendak • Jantzetxeak • Jostailu- erakundeak • Komunikabideak • Komunitateak • Konpreso- tuzkoak • Loradendak • Makina saltzaleak • Mar- tinak • Dermatologia • Dietetika eta nutrizioa • Errekonozit- zioak • Podologoak • Psikiatria • Psikologoak • Mer- kataritza • Optikak • Ortopedia • Pertsianak • Pinturak • Pizzeriak • Plastikoa- riak • Sindikatuak • Sofak • Sukaldeak • Tabernak • Tapizeriak • Tatuajeak eta- k • Torlojugintza • Zeramika

943 20 67 76 - 943 20 09 18

EIBAR_{ko} ETXE GUZTIETAN

eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentru... guztietan banatzen da



Asko dira

gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun

 innovadental
clinicas

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com